

DATORRENA

Demokrazia, gobernu
oligarkikoaren bidean ISIDRO ESNAOLA > 3

BEHOBIA-DONOSTIA: «Aiako Txikia»
omenduko dute etxekoek bere
garaipenetik ehun urtera > 12

2024ko azaroaren 9a | XVIII. urtea • 901. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



SAMBOU DIABY, IBRAHIMA BALDEREN
LARRUAN «MIÑAN» ANTZEZLANEAN

IBRAHIMA BALDEK HITZEZ AZALDU ETA AMETS ARZALLUSEK IDATZIZ KONTATU ZUEN ISTORIA. ORAIN, ANDER
LIPUSEN ARTEDRAMAK ANTZERKIRA ERAMAN DU «MIÑAN» LANA. ETA PAPERETIK OHOLTZARA, SAMBOU
DIABY AKTORE OIKIARRAK JARRI DIO GORPUTZA BALDERI. > 27 Jon URBE | FOKU



4



7



12



**Everest-eko «erreka piratak»,
mendiaren hazkundera eragina
duen gertaera harrigarria** **04**

**Hurtzaroan sexu indarkeria jasan
dute milioika pertsonak** **07**

**«Aiako txikia» omenduko dute
bere ondorengoek Behobian** **12**

**Udalbiltzaren Geuretik Sortuak
beka deialdia zabalik da** **18**

**Amestutako lanaren bila II.
Enplegu Azokara** **22**

**Superheroiak euskal gatazkara
ekarri dituzte Iban Zalduek eta
Julen Ribasek** **26**

In fraganti: Sambou Diaby **27**

Juantxo Egañaren behatzulotik **31**



18



22

SINADURAK:

- 03 Isidro Esnaola:** Demokrazia,
gobenu oligarkikoaren bidean
- 10 Oier Gorosabel:** Belauneko
lotailu gurutzatuak
- 11 Izaro Zinkunegi Barandiaran:**
Bizimoduez
- 16 Joxean Agirre:** Zuzenekoak
- 16 Maddi Aiestaran Iparragirre:**
Korrika
- 17 EXPRAI**
- 20 Gorka Zozaia:** Arauak
gainditzeko zubiak
- 21 Mijo Lizarzaburu:** Faxismoa
Donostiako Udaletxean
- 30 Nerea Godoy Fuentes:**
Hitzasmatzea



{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Demokrazia, gobernu oligarkikoaren bidean

Bi gauzek atentzioa eman didate AEBetako azken hauteskundeetan. Lehenengoa da Kamala Harris hautagai demokratik ez zuela primarioetako prozesua gainditu, orain arte AEBetako hauteskunde-kampainaren ezaugarri izan den izapide bat; azken unean aukeratu zuen Alderdi Demokrataren aparatua, segur aski alderdiko fakzioekin bidezko kontsultak egin ondoren. Batzuek esango dute beste aukerarik ez zegoela. Errealitatea da aurreikus zitekeela Joe Bidenek ez zuela maila emango, baina alderdiaren aparatua erabaki zuen egoera usteltzen uztea hautagaitza prozesua kontrolatu ahal izateko.

Bigarrena, Alderdi Errepublikanoaren hauteskunde-plantzaren oligarkia ekonomikoaren pisu handia izan da. Donald Trump higiezi-
nen oligarkia ezaguna da. Oraingoan elkartu zaio Elon Musk, automobilgintzako, industria espazialeko eta sare sozialetako beste oligarkia bat. Silvio Berlusconi inauguratu zuen tradizio hori, baina orain arte hauteskunde-zerrendetan handikien presentzia nahiko mugatua izan da, Hego globaleko eta Sobietar Batasunaren ondorengo espazioa kenduta. Mendebaldean, oligarkia ekonomikoek nahiago izan dute itzalean aberastu.

Nolanahi ere, pertsona askok oligarkia hauek politikari profesionalak baino trebeagozat jotzen ditu eta botoa ematen diete. Uste horren oinarria da enpresa pribatuen inguruan egiten den apologia: enpresak dira aberastasuna ekoizten, enplegua sortzen eta soldata eta zergak ordaintzen dituzten erakunde bakarrak. Beti ahazten zaie esatea enpresek aberastasuna sortzen dutela, Estatua osasunaz, hezkuntzaz, azpiegiturez eta gizarte-laguntzaz arduratzen delako, besteak beste. Eta horiek guztiak herrialde baten aberastasunaren parte dira, industria edo finantzak bezainbeste.

Sortzen duten aberastasunari buruzko eztabaida alde batera utzita, zalantzarik gabe, enpresa da erakunde nagusia gizarte kapitalistan. Hala ere, bere ezaugarri behinena ez da demokratikoa. Jabetzaren gehiengoa lortzen duen pertsonak edo pertsona-taldeak zuzenduko du enpresa, bere irizpidearen arabera. Erabaki guztien gaineko erabateko kontrola izango du, eta ez du inolako hautaketarik antolatu beharko: patroiak agintzen du, eta kito. Bere partaidetza saltzen badu edo jabeen beste aliantza bat eratzen bada soilik galduko du kontrola; hau da, beste talde batek konspirazio txiki bat antolatzea lortzen badu, bere boterea galduko du, eta horrek ez dirudi oso modu demokratikoa, gizarte modernoaren erakunde nagusitzat definitzen den arren.

Kapitalismoko enpresa egitura autoritario eta hierarkikoa da. Ezaugarri horiek gaizki ezkontzen dira demokraziarekin, eta ziurrenik joera autoritarioa ezartzen diete politikara salto egiten duten oligarkei

Egia da enpresa mota batzuetan langileen partaidetza handiagoa izaten dela, normalean txikiak direnean. Hazi eta kudeaketa sofistikatu ahala, parte hartzeko eta erabakitze mekanismo demokratikoak gero eta formalagoak bilakatzen dira.

Oro har, kapitalismoko enpresa egitura autoritario eta hierarkikoa da. Ezaugarri horiek gaizki ezkontzen dira demokraziarekin, eta ziurrenik joera autoritarioa ezartzen diete politikara salto egiten duten oligarkei. Nolanahi ere, oligarkak politikara igarotzea, Harris primarioak gabe aukeratzea bezala, demokrazia liberalak gobernu oligarkiko bihurtzeko eraldaketa gero eta esplizituagoaren seinale da. •

EVEREST-EKO PIRATAK

Zortzimilakoaren hazkundean eragina duen «River piracy» efektua ikertu dute

 **GEOLOGIA** / Andoni URBISTONDO

Everest bi plaka tektonikoren arteko talkaren ondorioz etengabe hazten ari dela jakina zen, baina ikerketa berri batek hazkunde horretan eragiten duen beste faktore bat ondorioztatu du: “*River piracy*” edo erreketako piratak. Ibai baten arroak beste batena eraldatzen du, bere urak erakartzeko. Arun ibaian gertatu zen, Tibeten, eta Nepalen dagoen Koshi errekaaren arroa izan zen lapurra. Lapurreta horretan, milaka arroka tona eraman ditu gizaldiz gizaldi-

ko higaduran, baina lurra bizkorra da, eta Everest igoarazten du, arroken masa galera hori orekatzeko. Errebote isostatikoa da. Planetak oreka bilatzeko duen berezko joera.

Lurra planeta duela 4.600 milioi urte sortu zen, eta gizakiok 80 bat urte irauten dugu bertan. Geologiaren handitasuna ulertzen saiatzeko zenbaki sinpleak dira. Naturaren

erreinu erraldoian gizakiok zein txikiak garen onartzeko aproposak. Everest mendiaren altueraz ikerketa piloa egin da azken hamarkadatan, eta frogatuta dago munduko gailur garaienak etengabe hazten segitzen duela, oinarrian dituen bi plaka tektonikoen talkaren ondorioz: indiarra eta eurasiarra. Urtez urteko zenbaketa egingo bagenu, bi milimetro litzateke emaitza. Gizakioi bi milimetro huskeria iruditzen zaigu, noski. Eta egia da, oso kopuru txikia baita. Urte batean. Eta 1.000 urtetan? Ba bi metro. Artikulu hau irakurtzen ari zareten guztiok ez du-



zue Everest-en hazkuntza ikusiko, baina gertatuko da, aurrez ere hala gertatu baita. Everest-ek 8.848,86 metro ditu ofizialki gaur. Ehunka urte barru zenbaki hori biribilagoa izanen da, 8.850 metro.

Plaka tektonikoen talkak eragindako bultzadari egin berri den ikerketa zientifiko batek utzitako beste ondorio bat gehitu zaio: erreka urek, higaduraz, mendian behera arrokak hautsiz eramaten duen materiala orekatzen du planetak. Batek kentzen duena besteak jarri. Oreka. Nola? Everest gorantz bultzatuz. Zenbat? Plaka tektonikoek eragiten du-

ten goranzko hazkuntza baino zenbaki apalagoa, baina Everest-en eta ondoko zortzimila-koen arteko garaiera diferentzia azaltzen duena. Arun ibaiaren higadurak Everest berari, Lhotseri eta Makaluri eragiten baitie. Makaluri, batez ere; hiru menditzar horien artean higaduragatik gehien hazten ari den mendia da.

Izan ere, inguruan dituen mendiak baino nabarmen garaiagoa da Everest, eta horrek erakarri du aspaldi ikerlari eta zientzialarien arreta. Lhotse dauka gertuen Everest-ek, 8.511 metroarekin munduko laugarren tontor garaiena, baina Everest baino 340 metro apalagoa da. Makalu ere ez dago urrun. 8.481 metroarekin, munduko bosgarren mendi garaiena da, Everest baino 370 metro apalagoa. Andeetan apalagoa da bost mendi garaienen arteko aldea, Alpeetan edo Pirinioetan bezala. Higaduraren ondorengo bultzadak hazkuntza gehigarriaren heren bat suposa dezakeela dio aipatutako ikerketa horrek.

Txina eta Erresuma Batuko geologoena izan da ikerkuntza, eta “Nature Geoscience” aldizkarian eman dute berri zehatza. Honatx ikertzaile taldeko Jingen Dai-k, Txinako Geozientzien Unibertsitateko geologoak, dioena: «Tibeten jaiotzen den Arun errekek Everest mendia altxatzen laguntzen du ‘errebote isostatikoa’ izeneko prozesu baten bidez». Zer ote da, baina, errebote isostatikoa? «Lurra- ren lurrazala gainazal zurrun baina malgua da. Azpian dagoen goi-mantuko material bigunago eta likatsuen gainean flotatzen du gainazal horrek, eta biek geosfera osatzen dute. Ibaiak higaduraren ondorioz mendietatik arroka ko-



Irudi nagusian, Everest eta inguruko gailurren argazki panoramikoa. Lerro hauen gainean, Eñaut Izagirre, baliza batekin glaziar batean neurketak egiten. EYESWIDEOPEN | GETTY - EÑAUT IZAGIRREK UTZITAKOA

puru izugarriak eramaten dituenean, gainazal flotagarri horri pisua kentzea bezalakoa da. Ibaien higadurak ezabatzeko, masa gorantz bultzatuz erantzuten du geosferak, isostasiaz izeneko prozesuaren bidez: oreka grabitatorioa ere esaten zaio».

Termino zientifiko samarrak argitze aldera, Eñaut Izagirre geografo, fisiko eta glaziologoarengana jo dugu argi printza apur baten bila. Ibaien higadura osteko errebote isostatikoaren efektua oso ezaguna zaio, glaziarretan ere prozesu hori gertatzen delako: lurrak izotz masa galera orekatzen du. Elgoibartarra Katalunia eta Pirinioen artean bizi da egun. Instituto Pirenaico de

Ecologia-rentzat aritzen da lanean (egoitzak Jakan eta Zaragozan ditu), Cryopyr taldean. Aneto, Monte Perdido, Ossoue-Vignemale, Infiernos eta Posets-eko Llardana glaziarretan aritzen da, landa ikerketa egiten. Vignemale tontorrera bidean doala eman dizkigu orekaren inguruko azalpen ASKI interesgarriak: «Gure planeta oreka bilatzeko etengabeko jardunean murgilduta dago. Leku batean galtzen duena konpentsatzen saiatzen da, baina ez du inoiz lortzen, lurrean etengabeak baitira energia eztanda handiak. Izan lurrikarak, izan sumendien erupzioak, izan glaziarren urtzeak edo bestelako geologia gertaerak. Bizirik dago planeta, oreka betea ezinezkoa da».


«RIVER PIRACY», IBAI PIRATAK

Ossoue glaziarrean Vignemale mendiko glaziarren urteroko masa balantzea aztertu du drone, instrumentu moderno eta termometroekin, glaziar- rarak ordu oro nola erantzuten duen jakiteko. 2024a nahiko urte ona izan omen da glaziar- rentzat, «elurra berandu egin zuelako udaberrian. Horrek babesa eman die udan glazia-

Everest etengabe hazten ari da, eta hazkunde horretan eragiten duen beste faktore bat ondorioztatu du ikerketa berri batek: «River piracy» edo erreketako piratak

Arun ibaian gertatu zen, Tibetean, eta Nepalen dagoen Koshi erreken arroa izan zen lapurra. Lapurreta horretan, milaka arroka tona eraman ditu gizaldiz gizaldiko higaduran





rei, eta izotz galera askoz baxuagoa izan da». Arun ibaia eta Everest-en kasua aipatu dizkiogu, informazio bila, eta munduko gailur garaienean gertatzen denak ez du ezus-tean harrapatu. “River Piracy” terminoa ekarri du solasaldira berehala (ibai pirata).

«Geomorfologia munduan oso teoria ezaguna da ibai piratarena, eta ez da Nepalen bakarrik gertatzen, Euskal Herrian ere gertatzen da». Aho bete hortz utzi gaitu. Non gertatzen da, ba? «Gipuzkoan Deba ibarrak Urola ibarrari zati bat kendu zion Udana gainean, adibidez. Urola bailaren ur banalerroan nagusi dira arroka bolkanikoak, Karakate-Irukurutzeta, Murumendi eta Irimo mendietan. Arroka gogorak. Arroaren ohea edo oinarria gorago du Urola ibaiak, Zumarraga edo Legazpi Beasain edo Bergara baino gorago baitaude. Deba ibaiko arroak ibai adarrak kentzen dizkio Urolako arroari. Hemen, gure txokoan ere gertatzen da ibai pirata efektua. Nepalen eta Hi-

malaian baino neurri txikia-goan, noski».

Everest inguruan Arun eta Koshi ibaien arroak dira River Piracy teoriaren protagonistak. Arun ibaia, Bum-Chu izenekoa tibeteraz, Tibet-en jaio-tzen da, Nyalan probintziako Gyatso herrian. Han, Everest eta beste mendietan behera datozen elur urak hartzen ditu, Rongbuk glaziar ezagunekoak tartean. Ur kantitate itzelak hartzen ditu, eta ekialderantz egiten du, leun-leun, 3.500 eta 4.000 metro artean.

Duela 89.000 urte, baina, geologia gertaera bat izan zen bertan. Koshi ibaiak, Nepalen,

«Geomorfologia munduan oso teoria ezaguna da ibai piratarena, eta ez da Nepalen bakarrik gertatzen, Euskal Herrian ere bai», Eñaut Izagirre glaziologoak aho bete hortz utzi gaitu

«Gipuzkoan Deba ibarrak Urola ibarrari zati bat kendu zion Udana gainean, adibidez», gehitu du Izagirrek, aldaketa hauek eskala geologikoan ulertu behar direla argi utziz

Deba eta Urola ibarren ibai-harrapaketa erakusten duen grafikoa.
GAUR8

Himalaia mendikateko hego isurian, Arun ibaiaren arroa lapurtu zuen, eta ipar-hego norabidea hartzera behartu, bere jatorrizko norabidea mendebalde-ekialde izanik. Nola eta zergatik? Halaxe azaldu digu Izagirrek: «Koshi ibaiaren arroa Arun ibaiarena baino askoz handiagoa da, eta goi lurretako urei halako irteera azkarra eskaini zien Himalaia mendikatearen bestaldera. 35 km-ko zabalera txikian, Everest, Kangtxen-junga eta Makalu mendien magaletik pasatzen da Arun ibaia, munduko bost gailur garaienetatik hiru, eta munduko arroila sakonenetakoa zizelkatu du gizaldiz gizaldi, gailur handi horiek baino 5.000 metro beherago».

Eskalari erreparatzeko eskatzen digu Izagirrek: «Milaka urtetako kontua da, eta giza ikuspuntutik eskala da arazoa. Aldaketak ezingo ditugu gure begiekin ikusi, baina lurraren historian beste perspektiba bat eduki behar da. 89.000 urte munduaren bilakaeran, geologian, kokatuta, eskala ulergarriagoa da. Everest urteko bi milimetro hazten bada, 50 metro hazi da 89.000 urtetan. Teorian antzera segitu behar luke, baina akaso bilakaera hori eraldatzen duen geologia gertaeraren bat helduko da».

Arun ibaia Himalaia iparral-detik mendebalde-ekialde norabidean mugitu zen bitartean, Everest ondoko mendien neurri berean hazten zen. Plaka tektonikoen talkaren ondorioz. Koshi ibaiko arroak Arungoa bereganatu zuenean, Himalaia mendikatea txikitu zuen bidea egiteko. Arun ibaiak 700 metroko amildegia libratu behar izan zuen Koshi ibaiko arroarekin bat egiteko,

89.000 urte atzera, eta haus-keta horretan sekulako arroka tona kopurua txikitu eta eram zuen arroilan behera. Bere emaria ere ikaragarri handitu zen, bidea egiten zuen neurrian, eta zazpi edo zortzi aldiz biderkatu zen jatorrizkoarekin alderatuta. Pentsa ze indar zeukan ibaiak.

AHOTS KRITIKOAK IKERKETAREKIN

Ikerketak ikerketa, badira txinatarrek eta britainiarrek plazaratu dituzten ondorioak zailantzan jarri dituztenak ere. Ibaien higadurak eragindako ondorioen ikerketan zientzia momentuz herren samar dabilela diote ahots horiek, ezin dela ziurtasunik eskaini. Kritiko diren horiek diote Everest eta inguruko mendietan eragin handiena duen faktorea montzoia dela (Himalaiako hego isurian eurite garai bi eragiten dituen faktore meteorologikoa).

Everest hazi eta hazi ari da, baina etorkizunean ere hala egingo duenik ez da ziurra. Inork ezin du ziurtatu, geologiaren eskalari erreparatzen badiogu, eta gaurko teoriak hutsalak izan litezke gizaldi batzuk barru. Plaka tektonikoek, ibaien higadurak eta altura handian dauden glaziarren erosioak eragiten dute Everest-en.

Azken faktore horrek Everest-eko gailurra bera higatzen du, eta hiru faktoreen interakzioak finkatuko du Everest-en etorkizuna. Geologiak erabakiko du, ez guk. Morgan Freeman aktoreak “Shawshank Redemption” pelikulan esan zuen geologia, finean, presioa eta denboraren ikasketa dela. Eta Lurrak –planetaz ari gara orain– soberan zerbait badu, denbora eta presioa egiteko gaitasuna dira.

Haurren aurkako sexu-indarkeria gure kontzientzia moralaren

orban bat da», halaxe adierazi zuen UNICEFeko zuzendari exekutibo Catherine Russek. Urri erdialdean argitaratu zituen UNICEFek bere azken ikerketako datuak, munduko haurrek jasandako sexu erasoak, alegia: gutxienez 650 milioi haurrek jasan dute haurtzaroan sexu indarkeria.

Azaroaren 7an eta 8an umeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko munduko lehen konferentzia ospatu zen, Kolonbian. Bertan, Gobernuz Kanpoko Erakundeak emandako datuak aletu, egoeraren inguruan hausnartu eta zenbait neurri proposatu berri dituzte. Deigarria da mundu mailan egindako lehen konferentzia izatea, baita lehen aldiz mundu mailako datuak batu izana ere, baina datuen inguruan mintzatzen hasitakoan, nabarmena da datuak biltzeko dagoen ezintasuna.

Zalantzarik gabe gai konplexua da, sexu abusuen gaia izatez konplexua izan ohi baita, baina haurrak tarteko izanik, are konplexuagoa bihurtzen da. Datuek erakutsitakoaren arabera gehienetan etxekoek eragindakoak izan direlako, herritar zaugarrienak direlako umeak, estigma handiko gaia delako... hamaika arrazoi egon daitezke tarteko.

UNICEFek egindako txostenak nazioarteko lehen hurbilketa bat egiten du. Zenbakiak jarri dizkio ikerketak egoera larri bati, kuantifikatzeko lana egin du nolabait, baina ezin ahaztu albo batera gertatu direnak ere: salatu nahi



ZENBAKIAK: BIKTIMAK IKUSGARRI BIHURTZEKO

650 milioi haur baino gehiago izan dira haurtzaroan sexu indarkeriaren biktima

INDARKERIAK / Iraitz MATEO

UNICEF Gobernuz Kanpoko Elkarteak lehen aldiz bildu du mundu osoan haur edota nerabe zirelarik sexu abusua pairatu zituztenen zifra. Aurreratu dute, hala ere, zifra ez dela guztiz erreala, datuak biltzeko izandako zailtasunagatik. Lehen urrats bezala plazaratu dute.

izan ez duten edota salatu ezin izan dutenen kasuak.

Ikerketan zehar bi kategoriatan banatzen dira erasoak, sexu indarkeria fisikoa eta ez-fisikoa, edo «kontakturik gabea» bezala ere ezaguna dena. Lehen kategorian bortxaketak edota eraso fisikoa ekarri duten sexu erasoak kokatuko lirateke, eta bigarren kategori-

zaziorako definizio bat proposatzen du Gobernuz Kanpoko Erakundeak: «Hitzezko edo hitzik gabeko edozein jokabide ez-fisiko, isolatua edo iraunkorra, sexu-jarduerarako edo haurraren sexualitaterako erabiltzen den gorputzeko edozein zatiri erreferentzia egiten diona, teknologiak emandako jokabidea barne».

Gainera, txostenak hainbat herrialdetan bizi den aroa nolakoa den gogoratzen du; hain zuzen ere, teknologiak urrats gehien eman dituen herrialdetan, sexu abusurako modu berriak ere berarekin ekarri dituela ondorioztatuz. Eta beraz, gizartearekin eta munduarekin batera, sexu abusuek ere «eboluzionatzen» jarraitzen dutela jaso dute adituek; bi begiak etengabe zabalik izatera bultzatzen gaitu horrek.

DAKIGUNA ETA EZ DAKIGUNA

Datuetan sakondu aurretik, datu ezak utzitako zoruari erreparatzea ere beharrezkoa da. Izan ere, txostenaren arabera, munduko herrialdeen %60k ditu datuak, erdiak baino gehiagok, baina datuak dituzten zenbait herrialderen kalitate maila eskasa dela jasotzen du irakurgaiak.

Datuek erakusten dutenez, haurren aurkako sexu-indarkeria oso hedatuta dago, eta muga geografikoak, kulturalak eta ekonomikoak gainditzen

Haurren aurkako sexu-indarkeria oso hedatuta dago, eta muga geografiko, kultural eta ekonomikoak gainditzen ditu.
Frank DEJONGH | UNICEF



ditu. Biktima kopuru handiena Saharaz hegoaldeko Afrikan erregistratu da, 79 milioi neska eta emakumerekin (biztanleen %22). Ondoren datoz Ekialdeko eta Hego-ekialdeko Asia (75 milioi, %8), Erdialdeko eta Hegoaldeko Asia (73 milioi, %9), Europa eta Ipar Amerika (68 milioi, %14), Latinoamerika eta Karibe (45 milioi, %18), Afrikako Iparraldea eta Mendebaldeko Asia (29 milioi) eta Ozeania (6 milioi).

Nahiz eta neskak eta emakumeak diren kaltetuenak eta beren esperientziak gehiago eta hobeto dokumentatuta dauden, datuek erakusten dute ume mutikoak eta gizonezkoak ere abusuen biktima direla. Kalkuluen arabera, 240 eta 310 milioi haur eta gizonek – 11tik 1ek, gutxi gorabehera – jasan dituzte bortxaketak edo sexu-abusuak haurtzaroan. Kalkulu hori emakumeetan 410 eta 530 milioi artekoa da,

kontaktu fisikorik gabeko abusu moduak kontuan hartzen badira. Orotara, gizarte osoaren %10 eta 20k jasan ditu sexu-abusuak haurtzaroan edo nerabezaroan.

ZENBAKINETATIK HARAGO

Haurtzaroa zein nerabezaroa garai zaurgarriak zein babesgabeak izan daitezke hainbat eta hainbatentzat. Ikerketak jasotzen duenaren arabera, indarkeria jasan duten haurrek arriskua dute berriro ere biktima izateko edota haurtzaroan jasotako indarkeria helduarroan beste batzuegan erreproduzitzeko. Hori horrela izanik, UNICEFek gomendatzen du haurtzaroan egin behar dela esku-hartzea, «bizitza oso batean belaunaldiz belaunaldi indarkeria erreproduzitzen jarraitu nahi ez bada».

Indarkeria belaunaldietan barna erreproduzitzeko arriskuaz gain, umetan sexu abu-

Kontakturik gabeko abusu moduak kontuan hartzen ez badira, 410 eta 530 milioi artekoa da biktimen kopurua.
Felix VIGNE | UNICEF

suak jasan dituztenek trauma helduaroraino eraman ohi dutela jasotzen du ikerketak: «Sexu-transmisiozko gaixotasunak hartzeko edo substantzien abusuaren erortzeko arrisku handiagoa dute, baita gizarte-isolamenduan edo burunahasteetan erortzeko ere, hala nola antsietatean eta depresioan, eta, gainera, harreman osasuntsuak sortzeko zailtasunak izaten dituzte».

Berriro ere indarkeria bizitzeko arriskuaren kasuari dago-kionez, datu bat jarri dute mahai gainean: 60 herrialde barnebiltzen dituen inkesta batek jasotzen du indarkeria sexista jasan duten emakumeen %42k haurtzaroan jasan zuela indarkeria hori lehen aldiz.

Sarritan, baina, haurtzaroari erreparatzen zaio, eta nerabezaroa berdin-berdin izan daiteke aro zaurgarria. Hain zuzen ere, emakume gehienek kasuan, 10etik 8, 14-17 urte bi-

tartean jasan zuten indarkeria mota hau. 10etik 2k, aldiz, kontatu zuen 13 urte baino lehen jasan zuela indarkeria mota hau. Txostenak adierazten duenaren arabera, joera antzekoak daude gizonezkoen kasuan ere. «Nahiz eta neskak eta emakumeak diren kaltetuenak eta beren esperientziak hobeto dokumentatuta dauden, datuek erakusten dute gizonezko mutilak ere abusuen biktima direla», zehazten du txostenak.

Jada jorratuta dagoen gaia bada ere, txostenak berriro ere gogoratzen du «erasotzaile potentzialak» gertukoak direla, familiako senideren bat kasu gehienetan. Hain zuzen ere, inkestatuak izan direnetatik %10ek baino ez du esan eraso egin zieten pertsona ez zutela ezagutzen. Gainera, ume edo nerabe gehienek sekretuan gordetzen dute erasoak jasan dituztela; 10etik 7k onartu zuten inoiz ez zutela aurrez kontatu. 10etik 1ek esan zuen «zerbait» esan zuela, baina ez zuela laguntza eskatu. Eta 10etik 2k, aldiz, babesa eskatu zutela azaldu zuten.

«Gehienek pertsonalki eza-gutzen duten norbaiti eskatzen diote laguntza, oso gutxi hurbiltzen dira elkarreterara», jasotzen du txostenak. Eta, era berean, nabarmentzen du ikerketaren ondorioetako bat izan dela, oro har, mutilek gutxiagotan eskatzen dutela laguntza, beraien zaurgarritasuna erakutsiko luketelako horrela.

«Haur guztiek merezi dute haurtzaroa» lelopean ospatu dituzte jardunaldiak Kolonbian, konferentzia «historikoa» izango da antolatzaileen-tzat. «Haur guztiak beren etxeetan, eskoletan, komunitateetan eta linean seguru

egongo diren mundu bat ber-
rimajinatzea eta haurren ba-
besaren erronka globalarekin
bat datozen konpromisoak
hartzea», hori aipatu zuten au-
rrez asmo bezala.

HAINBAT NORABIDE

Neurri zehatzak definitzea ez
da lan erraza, nahiz eta Ko-
lonbian egindako jardunal-
dian joera nagusi batzuk, pro-
posamen sortaren bat edota
neurri zehatzak plazaratzeko
lanean jardun ziren. Hasteko,
arreta jarri beharreko ele-
mentuak azpimarratu zituz-
ten: genero ezberdintasuna;
gizarteko arauak bultzatuta-
ko jarrera eta hauetan batez
ere gizonak sexuarekin duten
harremana; eta biktimen es-
tigmatizazioa. Horiek dira,
UNICEFek landutakoaren ara-
bera, arretaz landu beharreko
hari mutur batzuk.

Elkarrizketa jo dute funtsez-
ko tresna gisara; gurasoek,
zaintzaileek edota irakasleek
formakuntza jaso behar dute-
la eta haurren portaera az-
tertze informazioaren jaso
tze egokia egin behar dutela
nabarmen dute. Eta be-
raz, beharrezkoa dela preben-
tziorako estrategia integralak
lortzea, modu eraginkorrean
biolentzia eta abusu orori au-
rre egiteko.

Botere guneen inguruan ere
aipamen berezia egiten du
txostenak. Eta hain zuzen ere,
jasotzen du Estatuak derrigor-
tuta daudela sexu erasoren
bat jasan duten umeei eran-
tzun eta laguntza «multidizi-
plinarrak» ematera; hau da, gi-
zarte zerbitzuak, osasun
zerbitzuak eta arreta zentroak
haur horien beharren eskueta-
ra bideratzera. Bestalde, esta-
tuek haurrak babesteko legeak
egin behar dituztela esaten du
Gobernuz Kanpoko Erakun-

deak: «Marko juridikoak behar
dira, abusua zigortu behar da,
eta baita esplotazioa ere. Erre-
parazio sisteman ere martxan
jartzeke daude oraindik, eta
horiek diseinatu behar dira».

Gizartearen eraldaketa bul-
tzatuko duten eta erroko alda-
ketak proposatuko dituzten
neurriak ere garrantzitsuak di-
rela azpimarratu du UNICE-
Fek. Batetik, honakoa proposa-
tzen du: «Zalantzan jarri eta
aldatu egin behar dira arau so-
zial eta kulturalak, indarkeria
sexuala erreproduzitzea ahal-
bidetzen duten arau horiek,
eta umeak laguntza eskatzetik
aldentzen dituen».

Zuzenean hurrei lotutako
proposamen bat ere egin dute.
Eta alor honetan, umeei be-
raien adineko informazio ego-
kia ematea aipatzen dute, hau
da, adin bakoitzerako zein in-
formazio eta material edo ba-
liabide den egokia ikertu eta
horiek garatzea; «Informazio

**Sexu bidezko indarkeria garaiarekin batera
aldatzen doala kontatzen du txostenak, eta
egun, teknologiak urratsak egin ahala, sexu
abusurako modu berriak sortu direla**

**Elkarrizketa beharrezko tresna da egoera
iraultzeko. Haurrari sexu indarkeria
antzemateko informazioa eman behar zaio, eta
helduei haurren portaera aztertze ere bai**


egokiak ahalbidetuko die hau-
rrei sexu indarkeria zer den
atzeman eta salatzea».

Haur edo nerabeek sexu in-
darkeria pairatzen dutela
atzeman eta salatzen dutene-
rako, ordea, beharrezko zerbi-
tzuek prest egon behar dute.
Kasu batzuetan zerbitzu ho-
rien koordinazioa eta inple-
mentazioa bermatu beharko
da, eta beste askotan irisgarri
egin beharko dira, eta zenbait
herrialdetan zerbitzu egoki-
tuak ere sortu beharko dira.

Prebentziorako estrategiak
garatzea da, UNICEFeko
txostenaren arabera,
lehenbailehen martxan
jarri beharrekoa.
Vicent TREMEAV | UNICEF

Horregatik aipatzen da txos-
tenean legeak eta bitartekoak
indartu behar direla, eta
zehaztaper bat gehitzen dute
adituek «haurrak babesteko
helburuarekin sortutako lege
eta bitartekoak izan behar di-
ra sortu beharrekoak». Horre-
tarako, arlo humanitarioan
inbertsioak egiteaz gain,
beharrezko sistemetan ere in-
bertitu behar dela uste dute.

Eta hasierako hausnarketara
bultzatzen gaitu azken neu-
rriak ere: «Datuak maila glo-
balean indartu eta egunerake-
ta sistema berriak arakatu».
Horixe da UNICEFek egindako
azken proposamen eta eska-
ria. Izan ere, beraien ustez,
biktimak kontatzen direnean,
jada ez dira ikusezinak, eta ja-
da babestearen inguruan
egindako promesak egia
bihurtzen hasi daitezke. Zen-
bakiak eta testigantzak badau-
de, baita promesak ere, ea ba-
liabideak noiz heltzen diren.





Oier GOROSABEL
Fisioterapeuta

Belauneko lotailu gurutzatuak


Belauneko lau lotailu nagusien artean buruhauste gehien ematen diguna aurreko lotailu gurutzatua (ALG) da. Ez asko lesionatzen delako (belauneko alboko lotailuak sarriago eteten dira), baizik eta bere ezaugarri bereziek osatzeko zaila bihurtzen dutelako. Belauneko lotailu gurutzatuak bi dira, aurrekoa eta atzekoa, eta “X” bat osatzen dute femur eta tibia hezurren artean. Biak puntu bertsuan sortzen dira: femurraren bi kondilo borobil handien artean; hortik tibiaren plataformara doaz, non bi depresio txiki ditugun, kondilo bana hartzeko eginak. Depresio horien artean aurretik atzera doan gandarrean txertatzen dira lotailu gurutzatu biak, bata aurrean eta bestea atzean: hortik hartzen dituzte izenak. Lotailu gurutzatuek egiten duten lana hitzekin azaltzea zaila da. Askoz sinpleagoa da “Jakoben eskailera” jostailu tradizionalari begiratzea, irudian duzuen, alegia. Laukitxoak binan binan lotzen dituen xingolen funtzio eta posizio berbera baitute lotailu gurutzatuek; egitura berezi honi esker, belaunak beste artikulazioek baino mugikortasun handiagoa lor dezake, lotailuen sendotasun handiak ematen duen egonkortasunarekin konbinatuz.

Izan ere, horixe da lotailu gurutzatuen beste ezau-

garri bat: beste lotailuen aldean sendotasun handiagoa dute. Belaunak gorputzeko beste artikulazioek baino karga eta mugimendu gehiago jasan behar ditu, eta beraz, babes handiagoa behar du. Ez hori bakarrik: lotailu hauen bolumenaren %1,5 nerbio zuntzez osatua dago, hezurrarekin bat egiten duten puntuetan lau mekanorrezeptore mota ezberdinekin. Egitura hauek erakusten dutenez, lotailu gurutzatuak ez dira lotailu hutsak: gainera, nerbio sistemari gure posturaren berri zuzena emateko gaitasuna dute, erantzun bizkorak ahalbidetuz.

Superbotere hauek, ordea, (pelikuletan bezala) badute alde iluna: lotailu gurutzatuak belauneko artikulazioaren kapsularen barruan daude, eta horrenbestez, ez dute odoleztatze zuzenik. Belaun barruko likido sinobialetik elikatzen dira, eta honek esan nahi du zuntzak etenez gero, ezin dituztela birsortu, beste lotailuek bezala.

ALG-a belauneko mugimenduak behartzen ditugunean eten daiteke; tipikoki, oina lurrean finkatuta dagoela belauneko errotazio gogorra egitean. Behin hau gertatzen denean, soluzio konplexuko arazoaren aurrean egongo gara. Tratamendua erabakitzeke, pazienteak zein bizimodu klase eraman behar duen jakin beharko dugu: ez badu belauneko esfortzu fisiko handirik egingo, tratamendu kontserbatzailea nahikoa izan daiteke; ALG-a etenda egon arren, inguruko muskuluak sendotuz gero, falta den lotailuaren funtzioa konpentsa daiteke eta bizimodu normala eraman. Aldiz, pazienteak belauneko mugimendu gogorrak behar dituzten kirolekin jarraitu behar badu (errotazioak, bihurdurak, azelerazioak, dezelerazioak), tratamendu kirurgikoa ezinbestekoa da: etendako lotailua ordezkatzea, alegia. Eraitza nahiko ona izaten duen operazioa da, bide batez esanda, eta errehabilitazio egoki batekin lehengo aktibitate fisiko mailara itzultzeko aukera handiak ematen dituena. •



Irudian, Jakoben eskailera jostailu tradizionala. SCIENTIFIC AMERICAN

{ asteari zeharka begira } IZARO ZINKUNEGI BARANDIARAN

Bizimoduez

Ederra da udazkena: goizeko freskuran ihintzak estalitako bidezidorretan galtzea; hego haizeak eraitsitako orbelak zapaltzea; nahi baino lehen ilundutako arratsaldeetan gaztainak jatea. Ederra da udazkena, eta are ederragoa horretaz gozatzeko asteburu luze bat izanez gero. Halakoa izan da azaroko lehena, ia-ia uda zaporekoa.

Gure etxean ere igarri da udazkenaren etorrera. Ardien zintzarri hotsak entzuten dira etxe inguruko zelaietan. Atzean utzi dituzte udako mendi larreak. Udazkeneko sasoiaren seinale ez ezik, negukoarena ere badira haien sabelalde mardulak. Laster aldatuko zaie bizimodua, arkumeak erditzen hastean. Eta, artaldeak nola, gurasoek ere nabari dute neguaren etorrera: su-egurra eginda, eta ukuilua bazkaz lepo, arkume sasoirako prest. Haiei ere aldatuko zaie bizimodua egun gutxi barru, enegarrenez. Uda urrundu ahala, argi-orduak gutxitu eta gauak luzatu dira. Ordea, gure gurasoei, lo-orduak urritu ez ezik, lanorduek ugalduko zaizkie.

Askotan entzun izan ditugu aita-amak bizimoduaz hizketan: euren ez dela ofizio soil bat, artzaintzak zaletasunetik eta maitasunetik asko duela, konpromisotik eta neketik bezainbeste... Eta, entzun ez ezik, ikusi eta sentitu ere egin dugu guk hori, familiako bizimodua ardaztu baitu.

Ez dira alferrik pasatu ia bost hamarkada ofizio horri heldu ziotela, aitzak lehenik, eta biek elkarrekin gero. Udaberrika kontatu ohi ditugu urteak; haien gorputzetan, aldiz, negu bakoitzak utzitako aje eta arrastoak sumatzen dira.

Eta ohartu gara, urteek aurrera egin ahala, aje horiek geroz eta gehiago pisatzen dutela, arrasto horiek geroz eta sakonagoak direla. Osasun arazo eta zaintza beharrak azaltzen joan dira tantaka-tantaka azken neguetan, galdera pisutsuei hitzak jartzen hastearaino: «Noiz arte euts diezaiokegu bizimodu honi?». Isiltasunak berak iradoki digu ez dela luzaz izango.

Eta, gurasoei ez ezik, etxeko ondorengo belaunaldiari ere badatorkigu itauna: «Prest al gaude egungo gure bizimoduak utzi eta gure etxea ardaztu duen horri heltzeko?». Gure ezezkoak ere gurasoen isiltasunak adinako zama du.

Iragan urteko neguaren gorrienean, erretiroa hartzeko eta artaldea kentzeko hotsak inoiz baino ozenago entzun ziren gurean. Zaila egin zitzaigun arren, bizimodua aldatzeaz hitz egin dugu ordutik. Bizimodua aldatzeaz, eta moduz bizitzeaz, eskutik baitoaz gurasoen kasuan: gutxierekin bizitzera ohi-tuak, jubilatutakoan ere hala bizi beharko dutela ederki dakite. Eta, arian-arian, duin bizitzeaz eta zaintzaz ere hitz egin dugu; edo, zintzoak izateko, duin zahartzeaz eta hiltzeaz.

Baina uda itxurarekin hasitako azaroak elkarriketa batzuk lurrundu dizkigu. Gorputzaldi onarekin heldu diote gurasoek udazkenari, aurtan negurik ez baletor bezala. Eta bizimodua aldatzeaz egindako galdera ha-

Artaldeak nola, gurasoek ere nabari dute neguaren etorrera: su-egurra eginda, eta ukuilua bazkaz lepo, arkume sasoirako prest. Gurasoei, lo-orduak urritu ez ezik, lanorduek ugalduko zaizkie

ren osteko isiltasunari “ikusiko dugu”-k hartu dio tobia. Guk, ezezko biribila eman dugunok, badugu erantzun argiak jasotzeko beharra; bizimoduak, zahartzaro duinak eta zaintza lanek kezkatzen gaituztelako. Eurenak; baina, bereziki, geureak.

Eta hala hasi dira jaiotzen lehenengo arkumeak, negua datorrenaren seinale. Ikusiko dugu zer dakarren. Bitartean, udazkenaz gozatzen jarraituko dugu; garai ederra da bizimoduaz, moduz bizitzeaz, zaintzaz eta zahartzaro duinaz aritzeko, ihintzak estalitako bidezidorretan galduz, orbelak zapalduz, edo gaztainak janez. •

«AIAKO TXIKIA»

Juan Manuel Azpiroz oroituko dute bere ondorengoek Behobia-Donostian

ATLETISMOA / Asier AIESTARAN

Juan Manuel Azpiroz «Aiako txikia» korrikalariak irabazi zuen Behobia-Donostia lasterketa 1924an. Aurten mendeurrena betetzen dela-eta, haren ondorengoek omenaldi bat egin nahi izan diote. Familiako hiru belaunaldi desberdinetako hamabi kidek biharko lasterketan parte hartuko dute propio ateratako kamisetak jantzita.

Aurten ehun urte betetzen dira Juan Manuel Azpiroz "Aiako txikia"-k Behobia-Donostia lasterketa irabazi zuenetik. Eta mendeurren hori ospatzeko, Azpirozen 12 ondorengok omenaldi bat egingo diote lasterketan urteurren-

rako propio atera dituzten kamisetak jantzita parte hartuz. Gainera, ospakizuna 70 bat senide bilduko dituen familia bazkari jendetsu batekin osatuko dute. Juan Manuel Azpiroz Aian jaio zen 1902ko irailaren 23an, Azkue baserrian, eta 1930eko hamarkadan Euskal Herriko korrikalari onenetako bat izan

Behobian parte hartuko duten senideetako batzuk, probarako entrenamendu batean kamiseta oroigarriak erakusten.
FAMILIAK UTZITAKOA

zen, "Aiako txikia" ezizenez ezagun bilakatuz. Ospe handiena apustu eta desafioetan lortu zuen arren, Behobia-Donostia 1924an irabazi zuen, oso gazterik, 22 urterekin, probaren seigarren edizioan. Garai hartan lasterketak ez zuen gaur egungoarekin zerikusi handirik, ez parte hartzaile kopuruari dagokionez behintzat. Urte hartan 24 lagunek eman zuten izena, baina 16 korrikalari bakarrik agertu ziren –gaur egun 30.000 inguru izan ohi dira–. Azpirozek nahiko erraz lortu omen zuen garaipena, 1:14:22ko denbora-ekin, Antonio Casal eta Francisco Rementeria menderatuz. Orain, 100 urte beranduago, sei biloba –Iñaki Ibarbia Azpiroz, Jon Irigoras Azpiroz, Ainhoa Azpirotz Eizmendi, Jaione Azpiroz Eizmendi, Aitor Azpi-

roz Eizmendi eta Jon Azpiroz Eizmendi–, bost birbiloba –Ibai Ropon Ibarbia, Aimar Esteban Ibarbia, Nerea Esteban Ibarbia, Ibai Azpirotz Huegun eta Ekhi Susperregi Azpiroz– eta hereniloba bat –Jare Urkola Ibarbia– izango dira Juan Manuelen garaipena oroitzeko lasterketan parte hartuko dutenak. Beste birbiloba bat ere parte hartzekoa zen, Joseba Mendizabal Ibarbia, baina azkenean ezin izango du biharko lasterketa egin.

LEHENGUSU BAZKARIKO IDEIA

Jaione eta Aitor Azpiroz lehengusuekin izan gara, ideia nola sortu zen ezagutzeko. «Urtero egiten dugun lehengusu bazkarian atera zen ideia, duela pare bat urte. Bazetorrela aitona Behobia-Donostia irabazi zuenetik ehun urte betetzen ziren data, eta horretaz ari gina, norbaitek proposatu zuen ea lasterketa egingo genuen. Bazkari horretan hasi ginen hitz egiten ea zein apuntatuko litzatekeen, zein ez, lasterketa omenaldi bat egiteko aprobetxatu litekeela... Horrelaxe hasi zen kontua», azaldu digu Aitorrek.

Gauza bat esatea izaten da, eta bestea egitea. Baina Aitorrek gehitzen duenez, hasieratik nahiko argi izan zuten plana aurrera atera beharra zeukatela. «Biloben bazkaria izaten da, eta bilobetan batzuk hasieratik egon ginen prest parte hartzeko. Esango nuke horiek aurrera jarraitu dugula. Gero, birbilobak gehitzen joan dira, antolaketaren ardura hartu zuenak familia bazkaria ere gehitu zion planari, kamisetak ere atera ditugu... Kontua handitzen joan da, baina hasieratik sostengua eman genionak hor gaude oraindik. Egingo genuela esan



genuen eta orain, eguna iritsita, egin beharra daukagu».

Adin eta kirol maila desberdineko senideak izango dira lasterketan parte hartuko dutenak, baina Jaionek dioenez, ederki moldatu dira prestaketa lanetan. «Azkenean 12 izango gara korrika aterako garenak. Zaharrenak, gure lehengusuak, 63 urte ditu. Bera da korrikan ongien dabilena, egia esan. Eta gazteenak 16 urte, nire semeak. Animatu egin da eta horrek ilusio handia egiten dit. Kontua aurrera zihoala ikusi genuenean, urtarilean apur bat serio jarri ginen, eta hilabetean behin topaketak egiten hasi ginen. Bakoitzak bere aldetik entrenatzen zuen, baina gero bildu egiten ginen leku jakin batean denok batera entrenamendu bat egiteko: Usurbilen, Zarautzen, Oiartzunen, Lezon... Horrek asko motibatu gaitu. Leku desberdin batean bildu eta ibilbideak egiten joan gara. Hasieran jende gutxixeago eta gero, birbilobak gehitzen joan ahala, gehixeago. Azkenekoa urrian egin dugu Zizurkilen, eta hor jada jende dezente bildu gara. Kamisetak jantzita egin genuen».

Lasterketari dagokionez, ez dute denbora zehatzik aipatu, eta bakoitzaren erritmoak errespetatzen saiatuko omen dira: «Hasierako entrenamenduak 5-7 kilometrokoak izaten ziren, eta gero luzatzen joan gara, 12-15 kilometrora arte. Hor ikusi dugu erritmo desberdinak daudela. Batzuk azkarxeago joateko gaitasuna dute, eta pentsatzen dut pare bat taldetan banatuko garela. Eta baten batek aurretik joan nahiko balu ere arazorik ez. Hasieran eta bukaeran egongo gara, eta gero bazkaritan ere bai. Erritmoa bakoitzak berea

Azpirozek 1:14:22ko denborarekin irabazi zuen 1924ko Behobia, Antonio Casal eta Francisco Rementeria menderatuz. Denbora bikaina da garai hartako baldintzak kontuan izanda

Mendeurrenean, sei biloba, bost birbiloba eta hereniloba bat izango dira lasterketan parte hartuko dutenak. Familiako gaztetxoek ere aterako dira gaurko Behobia Txikian


eramatea izaten da onena, eta pare bat taldetan joango garela aurreikusten dugu».

«Kasualitatez gutako norbaitek irabazten badu, hemendik ehun urtera guri egingo digute omenaldi berdina», bota du Aitorrek barre artean. Izan ere, argi dute ekimenak ospakizun bat izan behar duela. «Korrika 12 ateratzen gara, baina bazkaltzen 70 inguru izango gara. Kamisetak atera ditugu eta jai giroan ospatu nahi dugu. Emozionalki lotzen gaituen ilusio horrekin», gehitu du Jaionek ildo horretan.

AITONAREN OROITZAPENAK

"Aiako txikia"-ren garaipen eta lorpen zerrenda luzea da –ikus despiezea–, baina emaitzetatik haratago, Juan Manuelen inguruan etxean izandako bizi-pen eta oroitzapenak kontatzeko eskatu diegu Aitor eta Jaione Azpirozi. Aitona ezagutzeko aukera izan zutela gogoratzen dute biek, baina txikiak ziren 1984ko ekainaren lehen hil zenean, 81 urterekin.

«Guk zazpi bat urte genituen hil zenean. Bilobetan gazteenetakoak gara gu. Aitorren aita Juan Manuelen seme gazteena da, eta nire aita bigarren seme gazteena. Hamar anai-arreba zirenez, gure lehengusu zaharrenek gehiago ezagutu zuten, gauza gehiago kontatzen dituzte. Ni gogora-



Juan Manuel Azpiroz, korrikarako erabiltzen zituen jantziekin. FAMILIAK UTZITAKOA

tzen naiz sukaldean biltzen ginenean kartetan jolastea gus-tatzen zitzaiola, punttuan, eta betiko pike hori sortzen zela, ea zeinek irabaziko», gogoratu du Jaionek.

«Adibidez hobeto oroitzen naiz etxe atarian omenaldia egin ziotenekoaz –jarraitu du-. Baserria bota zuten etxe bat egiteko eta plaka bat jarri zioten 1983an. Nik agian etxean ez nuen istorio askorik entzun, baina omenaldi hura ikustean, bertsolariak eta guzti zeudela, konturatu nintzen gure aitona norbait inportantea izan zela Aian. Azpiroz abizena harrotasunez eraman dugu. Ez gara denok korrikala-

riak izan, noski, baina kirolean nahiko ongi moldatzen ginen denok eta horixe esaten genuen: 'Azpiroz gara'».

Aitorrek, bere aldetik, etxean aitonari buruz entzundako istorio batzuk gogoratu ditu, Juan Manuelen figurara hurbilpen pertsonalago bat egiteko balio dezaketenak. «Nik etxean beti entzun izan diot aitari ez zeukala aurkari-rik, eta garaiko egunkariaren batek idatzi zuela, munduan norbait baldin bazen berari aurka egingo liokeena, etor zedila Aiara eta jokatu zutela desafioa. Inor ez omen zen azaldu, eta horregatik berak bere buruari esaten omen



HOBETO EZAGUTZEKO AUKERA

Hain zuzen ere, ekimen honek "Aiako txikia" nor izan zen oroitzeko eta haren lorpenak balioan jartzeko balio izan duela esatean bat datoz Jaione eta Aitor, bai orokorrean jendarteari begira bai familia barruan. Alde horretatik begirata, Aitorrek anekdota polit bat kontatu digu.

«Balio izan digu iragana aztertu eta jakin-min hori asetzeko. Lehen ere izan genuen horretarako aukera. Gogoratzzen naiz Kortatuk 'Txikito Aiako' aipatzen duen kanta atera zuenean –"Kolpez kolpe" abestiari buruz ari da, izen bereko diskoan argitaratua– guk 15-20 urte izango genituela, eta nire aurreneko erreakzioa horixe izan zen, 'hori nire aitona zen' pentsatzea. 'Aizkolari handia' zela kantatzen zuten, baina une horrek balio dizu zure buruari galdera batzuk egin eta zerbait gehiago ikasteko. Antza denez, bi 'Aiako txiki' daude, bat aizkolaria eta bestea korrikalaria. Aizkolariaz ez dago informazio askorik. Ez zen horren famatua izango, baina Kortatuk hala abesten zuen. Eta orain bigarren olatu hau etorri da».

Jaionek, bere aldetik, familiako belaunaldi desberdinen artean eman den erlazio berezia nabarmentzen du: «Belaunaldi-arteko harreman hori sortzea polita da, denok biltzea». Eta zergatik ez, familiak Aiarekin duen harremana ere gogoratu du. «Gure belaunalditik Aian nire ahizpa bat bakarrik geratuko da, Aloña. Badakizu, azkenean, jendea fabriketara edo lana zegoen lekuetara joaten zen bizitzera. Baina guk Aiarekin lotura beti eduki dugu. Eta harrotasunez esaten dugu handik gatzozela», aldarrikatu du.



zion munduko onena zela. Hortaz gogoratzen naiz. Zezen-plaza batean zaldi baten aurka apustu ofizial bat jokatu zuela ere bai, abantaila emanda. Nik nire semeari esaten diot irabazi egin zuela, baina

ez, galdu egin zuen (barreak). Harroxko samarra zela ere bai. Azkenean, garaiko moduak izango ziren, apustuak tartean egonda. Behin apustu batera jertsea jantzita azaldu omen zen, nahiz eta bero handia

Goian, Jaione eta Aitor Azpiroz, Juan Manuelen bilobak. Behean, 1924ko Behobian helmuga zeharkatzen. Beste orrian, apustu giroko irudia. Andoni CANELLADA | FOKU - FAMILIAK UTZITAKOAK

egin. Aurkariak galdetu izango zion ea jertsearekin egin behar ote zuen korrika, eta hala erantzun omen zion: 'Nik hiri irabazteko ez zeukeat jertsea kendu beharrik'».

Hala ere, horrenbeste urtean apustu giro horretan ibili ondoren, behin zahartzarora iritsitakoan, ba omen zuen engainatua edo apur bat erabilia izanaren sentipena: «Gure aitak, bere seme gazteenak, esaten duenez, bera korrika oso iaioa zen, baina administrazio kontuetan ez horrenbeste. Apustu mundua izaten zen, eta azken urteetan ba omen zeukan apur bat engainatua izanaren sentipena. 'Ni oso ona izan naiz korrika, asko irabazi dut, baina asko kendu egin dizkidate'. Lapurtua izanaren irudipena omen zeukan. Zenbaki kontuetan ez zen izango oso ikasia, eta ekonomikoki une gogorrek bizitzera egokitu zitzaion», aipatu du Aitorrek etxean aditutakoak gogora ekarriz.

HAINBAT HAMARKADAZ EUSKAL HERRIKO PLAZETAN IKUSKIZUNA ESKAINI ZUEN KORRIKALARIA, KIROLA ULERTZEKO GARAICO MODUAREN ADIERAZGARRI

Juan Manuel Azpiroz korrikalari bikaina izan zen, garaiko Euskal Herrian lehiatzeko zeuden ohituren neurriko ibilbide luze eta emankorra izan zuena. Familiak egin duen datu bilketak erakusten duenez, hainbat lasterketatan hartu zuen parte gazte garaian, emaitza onak lortuz. Aipatutako Behobiako garaipenaz gain, Espainiako Kros Txapelketan lortutako 11. postua nabarmendu daiteke.

Baina bere garaipen sonatuenak Euskal Herrian egindako apustu eta desfioetan eskuratu zituen, garaiko bertsolarien arreta piztuz. Bertsotan jaso zen, esaterako, 1928ko otsailaren 26an Azpeitiko zezen-plazan Klaudio Egaña «Aizarnako txikia»-ren aurka jokaturakoa. 14 kilometro egin behar izan zituzten korrikalariak, eta, Joxe Luis Iriartek «Gure erri-joku nagusiak» liburuan jaso zuenez, «bira erdiz» irabazi zion 25 urte zituen aiarrak artean 18 besterik ez zituen aizarnarrari.

Handik hiru urtera, 1931ko maiatzaren 30ean, berriz neurtu zituzten indarrak Donostiako zezen-plazan, baina 25 kilometroko lanean. «Lehen hiru kilometroetan izugarritzko borroka egin ondoren, zeharo pot eginda gelditu zan Aizarnako txikia, aurkariaren jokaerak eta beroak ondaturik», kontatzen du Iriartek bere liburuan. Bigarren dema horri ere jarri zizkioten bertsoak.

Baina bi horiez gain, Aiako Txikiak beste 22 desfio jokatu zituen, gutxienez, 1934 eta 1958 artean. Eta horietako batzuk benetan deigarriak: 1943an, Goizueta-Ezkurrako gainerik Leitzara joan-etorria hiru orduz azpitik baietz egin jokatu zuen, eta 2:47:58ko marka ezarri zuen; 1944an, erreleboka aritu zen Arrigorriaga-Barrenetxea bikotearen kontra jokatzera



ausartu zen, nahiz eta azkenean galdu; anaiarekin bikotea osatuz ere jokatu omen zuen apustua, Laurgain eta Aia artean, bera normal korrika eta anaia atzeraka, horretan oso trebea zelako, nahi bezala korrika egin zezakeen bikote baten kontra.

Lorentzo San Julian «Azpeitiko ijito txikia», Pedro Iradi, Jose Beloki, Eusebio Alberdi, Jose Plaza, Ramon Etcheberria, Cesareo Zulaika, Eulogio Gurrutxaga, Jexux Alkorta edota Pedro Albeniz «Iruntxiberri» izan zituen aurkari desfio horietan. Gaztexeagoa zenean abantailak emanez, eta adinean aurrera joan ahala, jasoz.

Azpirozek 1958an jokatu zuen bere azken desfioa, 56 urterekin, Azpeitian. Eta bertsolari ezagunek ere famatu zituzten «Aiako

Normalean gauez entrenatzen omen zuen, egunez norbaitek ikusi edo zelatatuko ote zuen beldurrez. Apustu giro horretan ulertu behar diren ohiturak, segur aski

Seme-alabei helarazi nahi izan zien bere korrikarako grina, bidelagun hartuta. Bi alaba zaharrenekin belarretara joaten zenean ere, soroan bueltaka jartzen omen zituen

txikia»-ren dohainak, Manuel Lasartek edo Basarrik, esaterako. Hauxe Lasartek 1987an idatzitakoa:

«Azpiroz gendun korrikalari eder ta kurioa, anka-sardea bikaina zuen eta luzea pausoa. Zenbait alditan ematen zuen egan zebillen usoa, ain ibilkari zoragarria, bizia ta aidosoa, ark jendeari kenduko zion begietako lausoa.»

Zuzenekoak

Joxean AGIRRE

Etxeko liburutegiak, garai batean adiskideak bisitan etortzen zirenean harrotasunez erakusten genituen horiek, iraganeko kultura baten adierazgarri bilakatu dira, antigoaleko altzari bat bezain alferrikako askotan, jabearen bizitzaren arkeologia egiteko balioko dute, baina beste ezertarako ez, horma beteko apal horietatik oso bakanak baitira egurastera tarteka ateratzen ditugunak.

Horregatik, orain urte batzuk erabaki nuen ez nuela nobedaderik gehiago erosiko lehen hogeit hamar orrialdeak liburutegi publiko batean irakurri gabe. Arazo txiki batekin egin nuen topo: nire kasuan Koldo Mitxelena, edo antzera herriko liburutegian, dozena erdi bat irakurle harripakari daude nobedadeak ehizatzen dedikatzen direnak. Haien eskuetatik

igaro gabe besteok ezin izaten dugu liburu berririk irakurri.

Urte erdi bateko atzerapenarekin iritsi nintzen Euskadi Saria irabazi berri duen Jon Urzelainen “Su festak” eskue-tan hartzera. Hogeit orrialde ez, hamar irakurtzerako erabaki nuen erosi beharreko liburu horietako bat zela. Zuzeneko musikaren programazioa aztertzen du eta, jaialdi handien eta txikien araketa egitean, bakoitzaren atzean dauden interes turistikoak, ideologikoak, euskaltasunari buruzko ereduak, gure herriaz ematen duten ikuspegia eta beste mila zertzelada aztertzen ditu.

Norbaitek esan dezake, “zenbat jaialdi daude, bada, gurean, dozena erdi bat?” Nik ez ditut Jon Urzelaik aztertzen edo gaineratik bederen begiratzen dituenak kontatu, baina dozenaka dira; Bilbok marka guztiak hausten baditu ere, ez

baitago herririk kasik, ez behintzat turista batzuk erakarri nahi dituenik, udako jaialdixoren bat antolatzen ez duenik.

Egileak egiten dituen digresioak beti dira argigarriak eta, hala iruditut zait behintzat, musikaren ekosistema jasagarri baten aldeko aldarririk ere suma daiteke lerroen artean.

Biloba zaharrenak eta biok, tarteka, berari asko gustatzen zaion jolas bat egiten dugu etxean: liburutegitik hogeit bat liburu ateratzen ditu eta banaka erakusten dizkit. Nik bakoitzaren epaiketa azkar bat egin behar izaten dut eta, ez duela gordetzea merezi ikusten badu, sofaren gainera botatzen du harrika.

Badakit egunen batean, Urzelainen liburuari bere txanda tokatzen bazaio, ez dugula destainaz sofaren gainera botako eta mimo handiz itzuliko dugula apalera, etorkizunean berriro irakurtzeko. •

Korrika

Maddi Aiestaran
IPARRAGIRRE

Jende guztiak modu diferentean egiten du korrika. Bai bihar Donostiara abiatuko diren 27.722 korrikalariak, bai soinketa-irakasleek korrika eginarazten dieten ikasle nekatu guztiek. Ez dago korrika inoren modu berean egiterik. Edo horrela uste dut nik. Begiratu izan diet goizeko zazpietan —jada izerditan— etxepetik igarotzen zaizkigun kirolari obsesiboei. Eta iluntzeko zortzietan etxetik ihes egin nahi izan dutenei, “beste tarterik ez dutelako izan egun osoan euren buruarekin lasai egoteko”. Eta tarteko beste guztiei. Korrikalari asko pasatzen da gure etxepetik. Leihotik begiratzen

diet, eta bakoitzari aldiro sumatzen diot pausaje diferentea.

Egia esan, horietako asko eta asko multzokatzeko gai izango nintzatekeela uste dut: ahalik eta zapatila garestienak jantzen dituztenak, erlojua beti bistan; elkarren “lagunago” egin nahian korrika egiteko gelditzen direnak; astean korrika-saio batek estres-maila murriztuko diela itsuki sinetsi dutenak; supermerkatu lehenago abiatzea ahaztu zaientak... Begira-begira egoten natzaie. Oinez ibili ere modu diferentean ibiltzen da jendea; baina korrika indartu egiten da diferentzia hori. Burua eta besoak mugitzeko modua aldatzen da batez ere.

Kontua da honezkero ia denok gabiltzala korrika; baita buru-besorik aurrera eta atzera nabarmen mugitu beharrik gabe ere. Erlojuak, badaezpada, den-denok izan behar ditugu bistan; edo telefonoan, edo paretan, edo jertsearen azpian, edo go-goan, behintzat. Eta inportantea da batzuetan akordatzeko, soinketa-klaseetan eta Behobia-Donostia lasterketan bezalaxe, edozein kale arrunt zeharkatzerakoan ere badagoela aukera gelditu, amasa hartu, eta, erlojuari begiradarik bota gabe, zer egin nahi duzun erabakitzeko; ur trago bat edan, eta korrika jarraitzeak ez dizula onik egingo erabakitzeko, adibidez. Metak non dauden norberak erabaki behar du. •

}



EXPRAI

{

iRRITZIA:



EXPRAI
2024

GEURETIK SORTUAK

Udalbiltzaren beka deialdia zabalik da sortzaileentzat azaroaren 25era bitartean

Geuretik Sortuak sormen bekaren hirugarren edizioa martxan da. Udalbiltzak bultzatzen duen ekimenak euskal kulturari ekarpena egitea du erronka, eta horretarako, sortzaileentzat egonaldiak errazten ditu. Egonaldi artistiko horiek osatzeko, sortzaileak aukeratu behar dira lehendabizi, eta fase horretantxe dago ekimena. Azaroaren 25era bitartean, interesa duten sortzaileek beren lan proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte Udalbiltzaren webgunean. Lau alorrei begirako lanak lagunduko ditu bekak; literatura, komikigintza, zinemagintza eta antzerkigintza.

Udalbiltzak azaldutakoaren arabera, «funtsezkoa da Euskal Herrian arte eta kultura plan bat eta ardatz argi bat markatzea», eta bide horretan sortu

 **KULTURA** / Amagoia MUJICA TELLERIA

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak bekaren hirugarren edizioa martxan da. Azaroaren 25era arte sortzaileek proposamenak egiteko aukera izango dute lau alorretan; literatura, komikigintza, zinemagintza eta antzerkigintza. Udalerrien zerrenda osatuta, sortzaileak eta herriak korapilatuko dituzten egonaldi artistikoak paratuko dira.

zen Geuretik Sortuak orain lau urte. Euskarazko artea eta kultura indartzea eta herri kontakizuna garatzea dira bekaren erronketako batzuk, «herri bakoitzak bere historia eta istorioak kontatu behar ditu, eta gure kasuan euskaraz egin behar dugu lan hori», nabarmendu du Udalbiltzak.

Bide horretan dabilzan sortzaileek, beraz, aukera dute beren proposamenak egiteko. Urtarrilean emango du jakitera Udalbiltzak hautatutako

sortzaileen zerrenda eta parte hartuko duten udalerriena. Hortik aurrera, sortzaileak eta udalerriak harremanetan jarriko ditu Udalbiltzak, egonaldiak antolatu ahal izateko.

Bi urteko beka da, 2025 urtea izango dute sortzaileek beren lana garatzeko, eta urte horren amaieran aurkeztuko dira sortutako lanak. Bigarren urtea, berriz, hedapenerako izango da. Izan ere, bekak lana herriz herri ezagutzera emateko Euskal Herri mailako zirkuitu bat

Aritz Ibarra, Beran egindako erakusketan. Udalbiltzaren sormen bekak sormena bera eta hedapena laguntzen ditu.
Andoni CANELLADA | FOKU

ere aurreikusten du. 2026. urtea izango da, beraz, egindako lana erakusteko urtea.

Hirugarren edizio honetan berrikuntza bat izango da antzerkigintzaren eremuan. Aukeratutako lanetako bat kaleantzerkia izango da eta sortzaile hasiberri bati aukera eskainiko zaio. Erronka horretan profesionalen laguntza jasoko du sortzaile edo konpainia hasiberri horrek.

Lehen edizioan 26 sortzailek parte hartu zuten (16 idazle, bost zinemagile eta bost antzerki konpainia) eta 39 udalerritan izan ziren egonaldiak. Bigarren edizioan sortzaileak 22 izan ziren (hamar idazle, bost komikigile, lau zinemagile eta hiru antzerki konpainia), eta udalerriak, 39. Egonaldiak hiru astekoak izaten dira.

ARITZ IBARRA MARRAZKILARIA

Aritz Ibarra marrazkilaria (Gasteiz, 1992) Udalbiltzaren Geuretik Sortuak programaren barruan osatu zuen “Aldaxka pozoituak” komikia, 2023-2024 edizioan. Edizio horretan parte hartu zuten beste lau marrazkilariren lanekin batera argitaratu zen “Hona bostekoa” izeneko bilduma (Iñaki Martiarena Mattin, Unai Gaztelumendi, Eñaut Aiertzagüena, Kote Camacho eta Aritz Ibarra bera).

Ibarraren bigarren lana da “Aldaxka pozoituak”. «Komikilari izateaz gain, historialaria ere banaiz, eta saiatzen naiz bi pasio horietatik ogibide bat egiten». Sortzaileak dioenez, lan horietatik «bizi baino bizi-raun» egiten da, horregatik dira garrantzitsuak Geuretik Sortuak bezalako bekak. «Nire bigarren proiektuak laguntza horri esker egin du aurrera. Niri izugarri eman dit bai pertsonalki eta baita profesional-





ki ere. Toki eta jende berria ezagutu ditut eta nire bigarren lana kaleratzea ahalbidetu dit Udalbiltzaren proiektuak».

Ibarrak beka deialdira aurkeztu zuen proiektuak abiapuntu bat zeukan: «Duela pare bat urte buruan sartu zitzaidan Lehen Mundu Gerrak Ipar Euskal Herrian izan zuen eraginari buruzko komiki bat egin behar nuela. Oso gai ezezaguna iruditzen zitzaidan, bereziki Hegoaldean, eta sekulako hondamendia izan zen». Bide horretan aurkeztu zuen «Aldaxka pozoituak» lanaren proposamena. Hauxe, sinopsia: 2014ko azaroaren 11 da, Lehen Mundu Gerraren armistizioaren urteurrena. Urtero bezala, Urrunan gerla hau oroitarazten duen monumentuaren pean bildu dira zenbait herritar. Gauean, baina, iluntasunak kaleak estali dituenean, oroitarriko pertsonaiek bizia hartuko dute eta gertatutakoaz mintzatzen hasiko dira, orain arte itzaletan izan diren bizipenak argitara ateraz.

Udalbiltzak Euskal Herriko udaletxe desberdinekin jartzzen ditu harremanetan sortzaileak, aurkeztu duten

proiektuaren arabera. «Nire kasuan, lau herriko etxeekin jarri ninduen harremanetan. Nik Lehen Mundu Gerra landu nahi nuenez, ezin hobeto zertokidan kokapen bat hautatu zidaten; Iparraldeko bi herri, Sara eta Urruña, eta Hegoaldean mugatik gertu dauden eta gaiarekin lotura daukaten beste bi, Bera eta Lesaka».

Ibarrarentzat landa lan hori oso interesgarria izan zen. «Ni ohituta nago etxean eta bakarririk lan egitera, kasik gotortuta. Beka honek behartu ninduen hiru astetan lau lantoki desberdin izatera lau herri desberdinetan. Eta bertako jendearekin harremanak izatera, batzuk herritarrak, besterik gabe, eta beste batzuk lantzen ari nintzen gaiarekin zerikusia zutenak; historialariak, arbasoak frontean izan zituztenak...».

Liburuetan jasotako informazioarekin, egonaldian herritarrekin izandako elkarrizketekin, arbasoak frontean izan dituztenen testigantzeekin... osatu du lana Ibarrak. «Gauza bitxi batekin konturatu naiz. Bera, Lesaka, Urruña eta Sara oso gertu dauden

«Aldaxka pozoituak» komiki historikoaren bineta bat. Aritz Ibarraren lanak Lehen Mundu Gerrak Ipar Euskal Herrian izan zuen eragina jasotzen du. Aritz IBARRA

arren, Iparraldekoetan oso presente dagoen gaia da Lehen Mundu Gerra, eta hegoaldekoetan, aldiz, oso ezezaguna da. Kilometro gutxiren buruan, asko aldatzen da kontua. Hegoaldean Madrilera begira bizi gara eta Madrilek ezartzen digu gure marko ideologikoa eta historikoa. Iparraldean, berriz, Parisek ezartzen du. Eta Frantzia oso ondo arduratu da gai horren inguruan, bereziki azaroaren 11ren inguruan, bere diskurtsoa hedatzen. Apurka-apurka ari gara errelatoa osatzen eta gure iragana guretik aztertzen. Lan handia dago egiteko norabide horretan».

Lehen Mundu Gerraren inguruan Estatu frantsesak egi- ten duen irakurketa jarri du mahai gainean Ibarrak: «Kontakizun horren arabera, euskaldunak Lehen Mundu Gerrara joan ziren Frantziarekiko patriotismoagatik, eta milaka hil ziren bertan Frantziaren alde beren borondatez. Hori ez da egia, baina hori da mende oso batean gailendu den kontakizuna. Asmoa da horri buelta ematea eta ezkutatu dituzten eus-

kaldunen bizipenak ere kontatzea; iheslarienak, intsumi soenak, Euskal Herrian geratu ziren emakumeenak...».

Ibarraren ustez, egiari gehixeago hurbiltzen zaio honakoa: «Frantziak euskaldunak baliatu zituen fisikoki eta gerrara joatera behartu zituen. 183.000 bat biztanle zituen Iparraldeak, eta horietatik 6.000 hil ziren gerran, erdiak 28 urtetik beherakoak. Horrez gain, 10.000 bat zauritu izan ziren. Frantziak hondamendi fisiko hori baliatu zuen Iparraldea frantsesteko, soldadu horiek denak heroi eta hildakoak martir eginez. Etxe guztietan edo gertu hildako bat zegoenez, Iparraldeko herritarrek Frantziari gehiago lotzea ekarri zuen horrek. Hori oroitarazteaz arduratu dira geroztik azaroaren 11 guztietan, armistizioaren egunean».

«Aldaxka pozoituak» komiki historikoa da, «historia guretik aztertzekeo tresna bat». Izan ere, sortzaile gasteiztarren ustez ezinbestekoa da «guk guretik gure marko propioa ezartzea eta, ahalduntzen garen neurrian, gure historia kontatzea».



Gorka ZOZAIA - @zotz_
Kimikaria

Arauak gainditzeko zubiak

Egoera beltzenak ezinak iluntzen dituenak dira. Errealitate ankerrak gaindiezin dirudienean, zubi berriak behar ditugu aurrrera egiteko. Eta arazoa,

maiz, ez da zubiak eraikitze baliabide falta, baizik eta zubi berri horiek imajinatze ezintasuna. Arau jakinen bidez egituratzen dugu errealitatea, eta arauak berak mugatzen digu errealitate berriak irudikatze gaitasuna. Zientziak, batzuetan, muga horiek zeharkatzen ahal direla erakusten digu, eta itxaropen argi bat pizteaz gain, imajinazioa astintzeko bide ere izaten da. Horixe gertatu berri da kimika organikoaren eremuan, 1924. urtetik indarrean izan den Bredten araua urratzea lortu denean.


Kimikaren adar honek, organikak, karbono kateak ditu aztergai. Kate luze eta korapilatsuak eraikitze gai da karbonoa, elkarren arteko lotura sinple (alkano), bikoitz (alkeno) edota hirukoitzak (alkino) tartekatuz, askok institutu garaitik oroitu duzuen gi-

san. Besteak beste, egitura ziklikoak osatzen ahal ditu, baita irudira ekarritako ziklo bikoitzeko egiturak ere. Duela ehun urte arau gisa ezarri zena ondorengoa da: zubi bi elkartzen dituen karbono atomoak -zubi buru deritzanak- ezin du lotura bikoitzik izan. Hain zuzen ere, molekularen geometria distortsionatuaren barnean lotura bikoitzak duen disposizio zurrunk ezartzen zuen muga hau, eta mende bat eman dute kimikariek muga honen barruan lanean, anti-Bredt liratekeen molekulak ezinezkotzat joz. Iru-diak erakusten duenez, lotura bikoitza debekaturik lukete “norbornene” konposatuaren eskuineko isomeroek.

Mota honetako molekulak, baina, oso interesgarriak dira kimikaren motor nagusienetakoa den farmakologiarentzat, euren ezegonkortasuna erreaktivotasun handi batera itzultzen baita. Bizitzaren oinarria karbonoaren kimika bada, bere egitura, geometria eta funtzio anitzeko molekula konplexuen multzoarekin, bertan eragin nahi duten farmakoek ere behar di-

tuzte konplexutasun handiko geometria eta funtzioak. Hala, ekinaren ekinez, UCLAko (AEB) ikerlari batzuk hel-du berri dira Bredt-en araua apurtzen duten molekula batzuk sintetizatzeraz; nahiz eta hain diren ezegonkorak, ezin izan dituzte isolatu eta karakterizatu. Hain zuzen, beste molekula batzuekin errakzionarazi dituztelako daki- te anti-Bredt molekula hauek sintetizatu dituztela. Nolabait, biziki ezegonkorak diren molekula hauei une batez “eustea” lortu dute, nahi zuten erreakzioa gerta zedin.

Lan honek, beraz, Bredt-en araua aplikazio orokorrekoa ez dela erakusten du, eta bide berri eta oparoa zabaltzen du biziki distortsionaturiko alkenoak sintetizatze, zenbait farmakoren konplexutasun altuko egiturak sintetizatze oso erabilgarriak izan daitezkeenak. Alegia, farmakologiaren erreminta kutxan giltza berri eta oparo bat jarri da, ezina ekinez egina. Orain, testuliburuak berregin beharko dira, baina batez ere, imajinazio berriak landu, arauak gainditzeko zubiak zeharkatuz.



Norbornene



Forbidden norbornene isomers

Bredt-en arauaren arabera, lotura bikoitza debekaturik lukete «norbornene» konposatuaren eskuineko isomeroek. Jeff DAHL | WIKIPEDIA

{ koaderno } Mijo LIZARZABURU

Faxismoa Donostiako Udaletxean

Urriaren 12an bloke antirrazistak “urriak 12, ezer ez ospatzeko” le-maren azpian antolatatu zuen manifestazio antirrazista egon nintzen Bartzelonan. Manifestazio osteko potean, lagun batzuk eztabaidatzen aritu ginen kolonizazioa Euskal Herriaren paperaz, gure herrietako enpresek hegoalde globalan mantentzen duten estraktibismoaz eta gaur egun migratzaileen lan esklaboaren ondorioz ditugun pribilegioez. Gure zaugarritasun zuria jokoan zegoen, eta hura salbatzeko genuen aitzakia bakarra hurrengoan zen: Euskal Herria ez da Espainia, gurean behintzat ez dago faxismorik.

Igandean hartu genuen Donostiara itzultzeko tren. Heltzean, lagunak Trintxerpen gertatutakoaren berri eman zidaten: faxistak kaleetan. Gazte migranteekiko utzikaria instituzionala eta beldur arrazistak batzen dituzunean sortzen den egoera da hau, gero eta ohikoagoa bihurtzen ari dena. Hasieran, gaizki antolatutako faxista talde bat zen, “loquenotecuentandonosti” bezalako sare sozialetako profilek bultzatua. Ondoren, patriarkatuaren indarkeriaren imajinarioa eredu duten faxistak, kaleetan migranteak jipoitzeko patruilak antolatzen. Urriaren 14an, lehenengo jauzi instituzionala eman zen, Alderdi Popularrak talde hauek babestea erabaki zuen Iztueta kalean egin zen “segurtasun falta”-ren kontrako kontzentrazioan.

Segurtasun faltaz hitz egiten dute zuzenean arrazistak direla esatea ez delako politikoki zuzena. Ainhoa Douhaibik dioen moduan, herrialde honetan ez delako arrazaz hitz egiten, arrazismoaren hizkuntza (post) modernoak ez du “arrazaz” hitz egiten. Segurtasunaz, demokraziaz eta legez hitz egiten du; bizikidetzaz, aniztasunaz eta kulturartekotasunaz, baina ez arrazaz.

Egoera hau izanik, Donostiako Udalak erantzun beharra ikusi zuen. Eneko Goiak gazte migratzaileen pobrezia egoera hobetzeko neurriak

har zitzakeen: etxebizitza, lana, ikasketak edo osasun mentala bermatzeko programak abiarazi; migratzaileak jipoitzera irteten direnak iker-tu eta sasi alkandora beltz hauen jarduna eten edo, behintzat, faxismo herrikoia irudi diren manifestazioak debekatu. Baina ez, Kaleko Afari Solidarioak debekatzeko hautatu zuen. Kale egotzeran dagoen jendeari jatordu bero bat bermatzen zion herri antolakuntza kriminalizatzea, kontuan hartu gabe jende talde hau antolatze-ko arrazoi nagusia udaletxearen zabarkeria dela. Instituzioen ardura izan beharko litzateke egotzerarik prekarioenean dauden horien babesa bermatzea. Ohitu gara erakundeek ardura hori ez betetzera, baina hori egitetik udaletxearen ardura denaz kargu egin diren herritarren lana debekatzera salto handia dago.

Horrekin guztiarekin buruan, oso zaila egiten zait Bartzelonan defendatu nituen hitzak mantentzea. Jarraitzen dut pentsatzen gure herrian gehiengo antifaxista dela eta Kaleko Afari Solidarioen alde agertzen ari den herri elkartasunak hori erakusten du, baina Eneko Goiaren neurriak ikusi ostean, ezin dut esan ez dugunik euskal faxismorik.

Douhabik dioen bezala, faxistak kontsideratzen ez garenok faxismoa erabiltzen dugu gure burua zurrizteko. Haiek, besteak, eskuin muturrekoak dira arrazakeria mantentzen eta indartzen dutenak, eta haiek seinalatzean, guk ere onartzen dugun erregimen kolonialaren salbuespen gisa erakusten dugu geure burua, gure erantzukizuna albo batera utziz. Eskuin muturra izango da erasoak egiten dituen, hilerri bihurtu den meditarrenean egiten ditugun politikak justifikatzen dituen. Gainerako fakzio politikoei, bitartean, bi aukera izango dituzte, edo atsekabe handiz eskuin erreakzionarioaren programa onartu edo, Goiak egin duen bezala, zuzenean haien programa betearazi. Hori guztia guk gure inozotasun kolonialetik diogun bitartean: “Euskal Herrian ez dago faxismorik”. •

Bilboko Merkataritza Ganberak Enplegu Azokaren bigarren edizioa egin berri du, iaz abian jarritako ekimenaren bigarren deialdi bat, oso harrera ona izan zuen lehenaren ostean aurreikuspenak gainditu dituena, neurri handi batean. Enpresa gehiagok parte hartu nahi izan dute azoka honetan, eta ikasleen aldetik erantzuna ere aurrekoan baino handiagoa izan da. Izan ere, txiki geratu zen ganberako egoitza une askotan.

Antolatzaileek eurek nabarmendu zuteenez, bistakoa da enpleguaren bi alderdiak, enpresak eta langile gazteak, harremanetan jartzeko aukera paregabea dela azoka. Ikasle askok baliatu dute aukera hori, lan on baten edo ia ametsetako lana izan daitekeen horren bila. Alde bateko eta beste-ko parte hartzaileekin hitz egin du

AMESTUTAKO LANAREN ELKARRIZKETAREN BILA

Nerea GOTI

Ikasketekin lotutako lanpostu bat lortzeko aukerak ehunka gazte eraman ditu Bilboko Merkataritza Ganberaren II. Enplegu Azokara. Enpresek bilatzen dituzten askotariko profilen erakusleirio zabal horretan, gertuago ikusi zuten batzuek lana lortzeko aukera. Firma ezberdinen eskaintzak entzun eta curriculumak aurkeztea zen lehen urratsa. Hortik aurrera, enpresen deia jaso eta benetako lan elkarrizketa batera heltzeko itxaropena zen nagusi.

GAUR8k lan kontratu on bat produktu nagusia den espazio horretan, batzuek bilatzen dituzten eta besteek eskaintzen dituzten profilen inguruan galde-
tzeko. Bildutako testigantzen arabera, azoka, berez, ez da handik beso azpian lan kontratu batekin irtetea ahalbidetzen duen hitzordua. Lanpostuak eskaintzen dituzten askotariko enpresek betetzen dute espazioa, mahai ezberdinetan kokatuta. Mahai horietara hurbiltzen dira etengabe ikasleak, curriculumaren kopiez beteriko karpeta estu hartuta, euren profilarekin bat etor daitezkeen lanpostuetarako hautagai bilakatzera pasatzeko. Enpresa batzuek zuzenean hartzen dituzte curriculumak, beste askotan Internet bidez helarazi behar dute euren hautagaitza. Jasotako curriculumak aztertu ondoren deituko dute gaztea elkarrizketa batera, eta batzuetan, lan poltsa modukoak osatzeko informazioa izaten da, ordezkapenak egiteko.

Oso sektore ezberdinetako enpresen artean, eskaintza oso zabala da; hortaz, mota askotako lan baldintza eta soldatak egon daitezke, baina gutxitan aipatzen dira azken hauek. Ikasketekin lotutako lanpostuaren bilaketa da errepikatzen den ideia nagusia.

«USTE DUT ZORTEA EGON DAITEKEELA»

Matematiketan graduatua da Paco, Castelloko gaztea. Softwarearekin lotutako zerbaitetan edo datuen analisisan sar daitekeen lanposturen bat bilatzen du azokan. Azaldu duenez, profil horren bila dauden enpresa batzuk aurkitu ditu, baina beste hiri batzuetan dute egoitza nagusia. Bisitatu dituen stand ezberdinen artean, Bilboko Portuaren Agintzaritzarena aipatu du. Itxura one-
nekoa izan da hori gaztearentzat, «datuen arkitektura» lantzen dutelako, eta lan eskaintzaren bat hortik etor daitekeela uste du. «Curriculum eman diet, eta uste dut zortea egon daitekeela», dio Bartzelonan ikasi duen eta irakasle gisa ibili den gazteak.

Zehaztu du portuaren eskaintza horretan bere datuak plataforma generiko batera joango direla. «Datu base horretan, portuan lan egiten duten





enpresak daude, eta ni ere indibidualki sar naiteke enpresa horietako bakoitzean lan eskaera indartzeko. Alegia, hautagai izan zaitezke enpresa ezberdinetarako». Pacoren testigantzatik tiraka, azokaren funtzionamendura hurbildu gara, zeren azoka, berez, ez da berehalako lan kontratuak eskaintzen dituen plataforma bat. Esan duenez, gehiago funtzionatzen du lan poltsak osatzeko tresna gisa.

Merkataritza Ganberan egin den azken hau 16 eta 30 urte bitarteko ikasleentzat izan da, eta profil guztiak kontuan hartu ditu. Azokan parte hartzeko, izena eman behar zen, eta lan egoera

adierazi. Hortik aurrera, curriculum eskuetan eramatea da gomendinoa, enpresen standetan elkarrizketa egiteko unean dokumentazioa utzi ahal izateko, eta curriculum asko utzi dituzten asko aurkitu ditugu. Inpresio ona da orokorra, aurkitutako informazio argia eta enpresa horietakoren batean lanpostu «on» bat aurkitzeko itxaropena errepikatzen da elkarrizketatutako hautagaien artean, baita 'zorte' hitza ere.

Bi ordu baino ez dira igaro Bilboko erdigunean egoitza duen ganberak azokaren ateak zabaltu dituenetik, eta jada zortzi elkarrizketa egin dituen gazte bat aurkitu dugu jendez gainezka dauden

Hamasei eta hogeita hamar urte bitarteko ehunka gazte bildu zituen pasa den urriaren 31n Bilboko Merkataritza Ganberan ospatu zen azokak. Deialdiak sektore ezberdinetako hamarnaka enpresen parte hartzea izan zuen.
Monika DEL VALLE | FOKU

pasilloetan, enpresa gehiago bilatzen. «Uste dut lana aurkitu ahal dudala hemen. Elkarrizketa batzuk egin ditut Laboral Kutxan, Mapfren, Giroan...», kontatu du Camila izeneko neska batek.

GAZTEKIN KONTAKTATZEAREN GARRANTZIA
Cemosa Euskocontrol firmaren mahaian, Aitor Agirre enpresako ordezkariak azaldu du oso profil ezberdinak bilatzen dituztela. Gogoratu du duela 52 urte Malagan jaio zen enpresak 1.200 langile baino gehiago dituela Estatu osoan, baita atzerrian ere, 16 laborategi kudeatzen baititu penintsulatik kanpo, eta azpimarratu du horrek lan arlo eskaintza zabal bat suposatzen duela. «Eraikuntzen kontrola egiten dugu, lursailen ikerketatik hasita, geoteknia, laborategiko saiakuntzak kalitate kontrolak egiteko, jasangarritasuna... eta asistentzia edota osasunetik hasita, eraikuntzaren lan egiten dugu, bai obra zibilean, bai eraikuntzarekin zerikusia duen guztian», azaldu du.

Formazio ezberdinetako langileen bila hurbildu da azokara Cemosa. «Informatikariak, administrariak eta Euskal Herrian batez ere ingeniariak bilatzen ari dira, batez ere asistentziak egiteko, sondistak, geologoak, laborategiko langileak...», azaldu du. Profil horien artean epe laburrean lanean hasteko moduan egongo litzaitekeenik dagoen galdetuta, laborategiko langileak eta sondistak aipatu ditu berehalako lan kontratua lor dezaaketenen artean.

Agirreraren esanetan, garrantzi handia dute horrelako hitzorduek enpresentzat, ikasleekin harremanetan jartzeko aukera ematen baitute, baita «jende gaztearengana heltzeko ere, ikasten ari direnengana edo ikasketak bukatuta dituztenengana». Bi orduko epean, 15-20 elkarrizketa egin dituzte, enpresaren lan jardunaren inguruko informazioa eman dute eta curriculum bat jaso dute standean bertan; beste asko webgunearen bidez.

Cemosa da aurtengo edizioak bildu duen enpresa handietako bat. Bilboko Merkataritza Ganberako ordezkarien esanetan, hain firma garrantzitsuak

Adin guztietako ikasleen joan-etorrien erdian bildutako iritzien artean, azokak kolpe batean inguruan dauden lan eskaintzak eta eskatzen diren profilak ezagutzeko eskaintzen duen aukera eskertu dute gazte askok

Eskaintako lan arloen artean, izaera tekniko nabarmenekoak aurkitu ditugu, geoteknien, eraikuntzen ikuskaritzan edota lan arriskuen prebentzioan, kasu, baina baita profil zabalagokoak ere, dendari aritzeko, adibidez

biltzeak asko esaten du hitzorduaren garrantziaz. «Enpresentzat, azoka aukera bat da bilatzen dituzten profileko gazteekin kontaktuan jartzeko, eta gazteentzat, beren lehenengo lana aurkitzeko aukera izan daiteke», adierazi du Argia Andikoetxea Bilboko Merkataritza Ganberako Formakuntza eta Enplegu Teknikariak.

LAN MUNDUAN MUGITZEN IKASTEKO

Lan azokara bertaratu diren gazteek zenbait hitzaldi ere izan dituzte. Horietako batean parte hartu berri duen Iker Sevilla gaztearekin hitz egin du GAUR8k. Marketin eta Publizitatea ikasi du gazte bizkaitarrak, eta gradu bat du Informatikan. Ez du aurkitu proposamenik publizitatearen arloan: «Esan didate momentu honetan Euskal Herrian eskaintzarik ez dagoela, egotekotan Madrilen, Bartzelonan... daudela, baina daukadan beste graduarekin lotutako eskaintzak bilatzen jarraituko dut».

Azpimarratu duenez, azokak duen atal hori oso baliagarria da lan munduan murgiltzeko, ikusteko zer dagoen eta zer ez, zer bilatzen den gehien, eta nola jokatu behar den. Horrekin lotuta egon da goizeko hitzaldi bat. «Oso garrantzitsua da ematen du-

ten informazio hori, zeren aholkatu egiten dizute, esaten dizute curriculum-a nola aurkeztu behar den, zertan jartzen duten arreta enpresek... Lan munduan mugitzeko, estrategia horiek guztiak oso inportanteak dira».

Formakuntza Bilboko Merkataritza Ganberaren ibilbidearen ikurretako bat izan dela azpimarratu dute enpresen jardunaren laguntzan lan egiten duten erakundean. Arlo horretan une honetan duen eskaintza zabala azpimarratu du. «Esperientzia luzea eta tradizio handia daukagu arlo horretan. Guretzat oso inportantea izan da betidanik, krisiak egon direnean funtsezkoa izan baita, eta lehiakortasun itzela dago gaur egun. Uste dugu gau-

Sektore ezberdinetako enpresek hartu dute parte, aurreko edizioko zenbakiak apurtuz. Stand bat jarri dutenen artean, Bizkaiko Metaleko Enpresen Federazioak, Cemos a Eusko Control edo Bilboko Portu Agintzaritza, besteak beste

Merkataritza Ganberaren aldetik nabarmendu dute gazteei lana aurkitzen laguntzea dela helburu nagusia, baina parte hartzen duten enpresen artean, ikasleekin harremanetan jartzeko suposatzen duen aukera azpimarratu dute


Beheko irudietan, gazte bat enpresaren standean, informazioa jasotzen. Ondokoan, formakuntza saio bat lan azokaren barnean.

Monika DEL VALLE | FOKU

zak ondo egiten ditugula, gauzak berriztu ditugu...».

Bilboko deialdi honen atarian, ikasle talde batzuk aurkitu ditugu. Down Sindromeeko Fundaziokoa da horietako bat. Zer lanpostu eskaintzen dituzten ikusi nahi dute. Administrazio laguntzailearekin lotutako lan eskaintzak bilatzen dituzte, haietako batzuek horrekin lotutako formazioa baitute, baina ariketa ere bada. «Lanerako gaitasunen entrenamenduan lan egiten ari garen talde bat gara, eta hau klaseko jarduera ere bada, elkarrizketak egin ahal izateko eta jakiteko honek guztiak nola funtzionatzen duen», azaldu dio GAUR8ri Vanesak, ikasle taldea gidatzen duen pertsonak.

Angelentzat, aldiz, eskaintza txiki geratu da. Basozaintza ikasten ari den talde bateko kidea da, eta dioenez, haien-tzat «ez zegoen apenas ofertarik». Orduategiak ere oztopo dira, «lanaldi osokoak dira, eta ikasten bazaude...». Eskertu du, halere, enpresen aldetik «oso ondo azaldu» dietela, eta azokak espazio zabalago bat behar duela gehitu du: «Ez dira stand guztiak ikusten, eta elkarrizketak egiteko espazio gutxi dago, ‘agobio’ apur bat ematen du». Esperientzia errepikatuko lukete, hala ere, «ea zorte pixka bat dagoen».





GAUR8 ireki gure leihoa



Fusio, Fisio, Depresore, Barrenero, Lady Toledo, Atari, Porlana, Makadama eta Zatiki superheroiak dira. Denak sortu zituen Armada espainolak, Bardeetako laborategi sekretu batean, 1960ko hamarkada amaieran. Super-gizakiak sortzeko esperimentuak egiten ari zen Gobernu espainola, eta 1975ean Franco diktadorea hil zenean, botere hutsune bat sortu zen bertan. Nahasmen hori baliatu eta alde egin zuten superheroiek, eta gehienak Euskal Herrian geratu ziren bizitzen. Garai politiko oso mugituak bizi zituen Euskal Herriak, eta testuinguru horretan lurreratu ziren superheroiak.

Hori da Xabiroi komiki aldizkariaren “Botere handi batek” azken bildumaren abiapuntua. Ikastolen Elkarteko proiektuak 18. bilduma osatu du honekin, eta 20 urte beteaz da, 2025ean, hain justu.

Spider-manek esaten zenez, «botere handi batek eran-

XABIROI BILDUMA

Superheroiak euskal gatazkara ekarri dituzte Iban Zalduak eta Julen Ribasek

 **KULTURA /** Amagoia MUJKA TELLERIA

«Botere handi batek» izena du Xabiroi komiki aldizkariaren bildumako azkenak. Iban Zalduak eta Julen Ribasek osatu dute lana -batek gidoia eta besteak marrazkiak-, eta bi zutoinen gainean josi dute istorioa: superheroiak eta euskal gatazka. Historiak baino istorioak dauka garrantzia, egileek nabarmendu dutenez.

tzukizun handi bat dakar». Ideia horretatik jantzi diote izena Iban Zalduak eta Julen Ribasek elkarrekin egin duten bildumari. Izan ere, superheroien aldeko aldarri bat da lana, eta Marvel unibertsoarekin parekidetasun bat dauka: superheroiak ez ditu fikziozko mundu batean kokatzen, gurearen paretsua den errealitate batean baizik.

Hartara, 1970eko hamarkada erdialdetik 1990eko hamarka-

daren bukaerara arteko Euskal Herria begiztatu daiteke komikiaren binetetan, eta garaiko gertaera latzak suma daitezke. Ez da kronika zehatza, baina iradokitzen dituen egoerak ezagunak dira Euskal Herrian. Iban Zalduaren hitzetan, «ez da historia edo kronika liburu bat, ez du asmorik errelatoaren borrokan mugarri bat izateko edo endredatzeko, ez zuzenean behintzat. Ez du helburu gisa ekarpen bat egi-

tea euskal gatazkaren konponketan. Gure helburua abenturazko komikiaren eremuan lan on bat egitea zen». Ariketa bat planteatzen du bildumak: «Saiatzen gara esploratzen zein bilakaera izango lukeen gure gatazkak superboteak dituzten izaki batzuek zeharkatuko balute», gaineratu du.

SUPERHEROIEN GENEROA

Superheroiak dira, zalantzarik gabe, lanaren zutoina, Zalduak berak oso maitea duen generoa. «Superheroiaren generoa interesatzen zait, ez bakarrik gatazkoaren eta haurtzaroren nigan izan zuen eraginagatik, baizik eta aro industrial kapitalistaren mitologia modernoaren oinarria delako. Jainkoen eta demonioen mitologia zaharra zientzia fikzioarekin gurutzatzen du. Eta pentsatu nuen, ‘zergatik ez gure historia garaikidearen eremura ekarri; gure historia garaikidearen azken gertakari lazgarri eta inportanteekin gurutzatu’. Euskaraz ez da asko jorratu generoa. Gutxi jorratu da perspektiba honetatik, superheroien komiki kanonikoaren ikuspegitik. Ekin ezineko erreferentzia da Patxi Gallegoren ‘Xabinaitor’. Baina horrek umoretik eusten dio superheroien arketipoari. Nik album serio bat egin nahi nuen. Lan dramatiko bat da eta, zentzu horretan, superheroien komiki klasikora gerturatu da».

Julen Ribas marrazkilarientzat ez zen hain ezaguna superheroien mundua. «Nik ez neukan jakinduria handirik superheroien inguruan, eta 70eko hamarkadetakoa komiketara jo nuen». Lanak bere konfort gunetik aterarazi du Ribas, eta hori beti omen da «ikasteko bide interesgarria».

Irudian, ezker-eskuin, Iban Zaldua eta Julen Ribas, gidoilaria eta marrazkilaria.
Jon URBE | FOKU



Sambou Diaby aktorea, Zumaiaiko Inpernupen.

Jon URBE | FOKU

*in*fraganti **SAMBOU DIABY**

Will Smith telebistan ikusi eta aktore izateko grina piztu zitzaion Sambou Diabyri. Hollywoodera begira jarri gabe, aktore beltz euskaldun bezala belaunaldi gazteagoen artean erreferente bihurtu nahi du berak. Ibrahim Balderen larrian sartu da Artedramaren “Miñan” antzezlanean, Ander Lipusen gidaritzapean. Atzo zumaiaarren aurrean aritu zen.

Galtzak bete lan dabil, baina senti dezakeen presioak ez dio irribarrea ahotik kendu. Atzo igo zen herritarren aurrean agertokira Ibrahim Balde gorpuztera. «Zumaiakoa da denetan emanaldi bereziena. Estreinaldi eguna ez zen erraza izan, baina norbere herrian, denen aurrean... Urduri jarriko naiz. Gainera, publikoari hitz egiten

diot eta denak aurpegi ezagunak izango dira. Bertigo pixka bat emango dit», aitortu zigun Sambou Diabyk egun batzuk lehenago.

Zurrunbiloa nola daraman jakin nahi dugu. «Emozio handiz ari naiz bizitzen. Obrak kristoren harrera izan du eta oso pozik nago. Oraindik zehazki ez dakit non murgilduko garen. Aurrerago, ea noraino iristen garen!», bere erantzuna. Artedrama konpainiaren “Miñan”

da antzerkigintzan duen lehen esperientzia profesionala. Ibrahim Baldek hitzez azaldu eta Amets Arzallusek idatziz kontatutako istorioa ezagutzen zuen, baina liburua ez zeukan irakurrita.

Protagonista anaiaren bila abiatu izana egin zitzaion deigarria. «Nire aita bizitza hobe baten bila etorri zen. Ibrahim Alhassanen bila hasten du bidaia. Anaia berandu baino lehen aurkitu nahi du eta etxera bueltatzeko esan nahi dio. Libian dagoela esaten diote anaiari zer gertatu zaion. ‘Beranduegi, etxea urrunegi dago’, dio berekiko Ibrahimak. Errudun sentitzen da, pentsatzen du ez duela merezi amaren begiek bera berriz ikus dezaten. Kristoren pisua dauka, ilun-iluna. Eta aurrera egiten du».

Balde ezagutzeko aukera izan du. «Madrilen elkar ezagutu genuen lehen aldiz, Parlan bizi da. Ez genuen gauza handirik esan, bera ere ez da asko irekitzekoa. Bilboko estreinaldira etorri zen gero.

Hunkigarria izan zen. Denok negar batean bukatu genuen».

Timberlake Wertenbaker dramaturgoak Amets Arzallusen liburua Londresen taulartzeari zuten asmoa. Ander Lipus izan zen hemen euskaraz egitea proposatu ziona. «Jende askok ez daki gu, aktore beltzak edo arabiarak, euskaldunak, existitzen garenik. Timen kasuan, dena den, ez dakit horrela gertatu zen, Londresen bizi eta lan eginda logikoa da buruan hiri hura izatea».

Aurretik telebistan eta zinemaman –“Altsasu”, “Kartzela”, “Itsaso”, “Faisaien irla”, “El Hoyo 2” eta “La regla de Osha”– parte hartzeak egin ditu.

Dantzaria ere bada, autodidakta. «Michael Jackson imitatzaz hasi nintzen, gero dantza urbanoak egin ditut. Eskolako festan-eta beti dantzari aritzen nintzen, eta inoiz beste bat hasiz gero, pikea!», esan du berriz. «Herrian dantzari bezala ezagutzen ninduten». Frantsesta eta ingelesa menderatzen ditu. «Hizkuntzak asko gustatzen zaizkit», dio.

Interpretazioak erabat asebetetzen du. «Hitz gutxiko pertsona naiz eta agertoki gainera igotzeak edo kamera aurrean jartzeak asko betetzen nau. Dena ematen dut eta hustu egiten naiz. Dena askatzen dut, dena!», esan du, irribarrez. Lotsatia? «Erreserbata, lotsatia baino gehiago», zehaztu du. Obserbatzailea –«batzuetan gehiegi, dio»–, ahal duen dena xurgatzen ari da. Ikasten.

Nola lan egin emozioetatik? «Antzerkian ari naizenean, hor bai, ireki egiten naiz eta oso fidela naiz une horretan sentitzen dudanarekiko. Barua irekitze hori ez zait oso zaila egiten. Pertsonaiaren arabera da...», adierazi du.

ZER PENTSATUA

«Ohikoan egiten ez duzun hori egiteko aukera duzu aktore moduan. Izaera ere alda deza kezku beste pertsonaia barruan zaudenean», kontatu du. Terapia? «Bai, terapia pixka bat ere bada, benetan!», barre algaraz. «Pertsonaia batzuek ematen dizute zer pentsatua. ‘Nik ere badut horretatik pixka bat eta ez da ona’, esan izan diot neure buruari».

«Askotan sinesten dut energian, harriak eta erabiltzen ditut», argitu du Diabyk. «Kalean, jendearekin nagoenean, energia asko gastatzen dut. Gero, bizpahiru egun etxean pasatzen ditut energia orekatzeko. Etxean lasai egoten naiz, ez dut beste ezeren beharrik».

Umetan begiak zabal-zabal egoten zen telebistaren aurrean “El Principe de Bel-Air” ikusten. «Nik Will Smith izan nahi nuen, berak egiten zituen gauzak egin! Familian desberdina zen bera, gainera, eta erabat identifikatzen nintzen. 14-15 urterekin esan nien gu-



Ilusioz bizi du oraina eta berdin begiratzen dio etorkizunari aktoreak.
Jon URBE | FOKU

rasoei ez nuela musulmana izan nahi. Hainbat kontu ez nituen ulertzen, eta, egindako galderen erantzunak ez banau konbentzitzen, nahiago beste bide bat hartu», aitortu du.

Txikitatik oso argi zeukan. «Batxilergoa Zumaian bukatu eta Donostiara joan nintzen TAEn (Arte Eszenikoen Tailerrera) ikastera. Madrilen pare bat ikastaro egin nituen ondoren, eta handik Bartzelonara joan nintzen».

TAEn lehenengo urtea ezkutu egin zuen. «Gradu bat ikastera nindoala esaten nuen etxean, eta ez zidatenez galdeztzen zer zen... Hantxe joaten nintzen autobusean Donostiara! Bigarren urtean, ‘aita, jada eskolan hemen nago eta bide haxe hartu dut’, esan nion. Grazia handirik ez zion egin. Beti beldurrez, ondo aterako al da? ‘Nik bidea egin dut, zuek etorkizuna izan dezazuen, eta

zuek artista izan nahi duzu?’, esan zidan. ‘Sinesten ez baduzu, ez dakit, nik behintzat sinesten dut!’, erantzun nion».

Orain pozik bizi dute semea urratzen ari den bidea. «Emailtzak ikusten hasi direnetik sinesten hasi dira. Arriagako estreinaldira etorri zen aita, eta oso emozionatuta zegoen!».

Ama distantzian ari da bizitzen. Parisen dago, bi seme-alabekin. «Nik uste ez duela irudikatzen zer den egiten ari garena. Argazkiak eta bidali dizkiot, baina... Emozionatuta dago, ikaragarri pozik, aspalditik zekien zertan ari nintzen. Ea bideo natural bat egiten duten eta berak pelikula bat balitz bezala ikusteko aukera duen. Anai-arreba denak poz-pozik daude».

Aitak bere larruan sufritu du migratzailearen kalbarioa. «Bide ia bera egin du. Badaki ‘Miñan’-en kontatzen duguna

zer den». Aitak askotan kontatu izan die bere bidaia lau seme-alabei. «Oso interesgarria izan da entzutea. Gu hemen jaio gara eta ez gara konturatzen zenbat denbora pasa behar izan duen, zer jasan behar izan duen bide horretan... Gogorra ere bazen entzutea. Orain ‘Miñan’-eko esperientziarekin askoz gehiago... Ibrahimarena eta beste pertsona askoren bidaia da, nire aitarena, tartean. Trabesia oso antzekoa da guztiena».

SENEGALDIK EUSKAL HERRIRA

Senegaldik Europarako bidea egin zuen aitak. «Bidaia egiteko dirua behar zuen, beste ezerekin aurretik. Boli Kostara joan zen, oso gaztea zen eta bakarrik joan zen. Dirua lortu eta goranzko bidea egin zuen, pixkanaka. Mauritania osoa pasatu, Libiara iritsi, eta ondoren Marokora. Denbora luzea egin zuen han baso batean, zain. Gero, Almeriatik honaino».

Iruñean egin zuen lehen geltokia. Bertan lanean hasi zen eta, denborarekin, emaztearekin eta Fanta alaba zaharrena-rekin Euskal Herrian elkartzea lortu zuen.

Sambouk urtebete inguru zuela Oikiara (Zumaia) aldatu ziren. «Iruñean hiltegi batean ari zen lanean eta hemen lana eta etxea eskaini zizkion enpresa batek. Iruñean pisu partekatu batean geunden. Aita, ama, Fanta eta ni gela batean; zalantzarik ez zuen egin».

Lehen afrikarrak izan ziren Oikian. Bertan jaio ziren Diakhalaye eta Dambo. «Etxekoek esan izan didate hasieran gogorra izan zela. Begi asko. Beste begi batzuekin ikusten zaituzte, bertakoei dioten errespeturik ez dizute ematen». Orain ez dauzka saltzeko oikiarrak. Bertan bizi da. «Goi-

tibeherak egiten genituen menditik behera», gogoratu du irribarrez. «Oso haurtzaro polita izan dut. Zumaian, adibidez, edozeinek ez du bizi ahal izan nik bizitakoa. Oso aberasgarria izan da. Dena da mendi giroa, baserri giroa... Beste mentalitate bat daukate eta oso euskalduna da».

Birritan izan da Senegalen. «Hango familiarekin harremana baneukan, baina pixkanaka galtzen joan da, lehengusuak eta ezkontzen joan dira... Frantzian ere familia dezente daukat. Momentu honetan oso nirera nago», kontatu du.

DBH egitera Zumaiaiko ikas-tetxera joan zen. Han du kua-drilla. «Lau bat urtetan hainbat tabernatan aritu naiz lanean Zumaian. Herri txikia da eta denok elkar ezagutzen dugu». Elkarrizketa egiten ari garela herritarrak hurbildu zaizkio.

MODELO LANETAN, LEHEN ALDIZ

«Madrilen ere lagunak badi-tut. Modeloak, diseinatzaileak, aktoreak... denak afrikarrak. Elkar elikatzen gara», dio. Lagun diseinatzaile batek “XV Strange” marka sortu zuen eta Madrid Fashion Week-en desfilatzeko aukera izan zuen. «‘Erdiak modelo profesionalak eta beste erdiak zuek izango zarete!’, esan zigun. Hantxe desfilatu nuen!». Gustatu? «Bai, errepikatuko nuke. Kristoren jendetza zegoen, denak niri begira». Fokupean egotea gustuko duenaren seinale. «Oso!», dio barrez. «Edozein tokitan sartzen naiz ni. Ateak beti irekita. Diseinua eta arropa gustuko ditut».

Euskal Aktoreen Batasunak emandako Besarkada Saria-telebistako errebelazio saria-jaso zuen “Itsaso” teleseriean egindako lanagatik. Modu berezian bizi izan zuen unea.

«Sorpresa handia izan zen. Ekitaldian nengoen eta nik ez nekien ezer. Engainatu egin ninduten. Ekitaldian ‘Miñan’ aurkeztu behar genuela esan zidaten. Gezur horrekin ez dakit zenbat egun egon nintzen. ‘Orain errebelazio saria dator’, iragarri zuten galan. Eta pistak ematen hasi ziren. ‘Tortilla ez du gustuko’. ‘Nik ere ez, baina auskalo zenbat dauden gustatzen ez zaienak...’, nioen, neurekiko. ‘Kolore gustukoena morea du’, jarraitu zuten. «‘Nik ere bai, baina ez naiz ni’, ari nintzen. ‘Dantzaria da’, hurrengoa. ‘Baita ere, baina hainbeste jende dago dantza egiten duena...’. ‘Gaur Iparraldetik etorri da’. ‘Ni ere halaxe etorri naiz, baina izango da besteren bat, seguru’... Eta bat-batean nire izena

«Nik Will Smith izan nahi nuen, berak egiten zituen gauzak egin! Familian desberdina zen bera, gainera, eta erabat identifikatzen nintzen»

Ametsa? «Aurrera begira bizitza guztian honetatik bizi ahal izatea, lanik ez falta izatea. Eta ‘Miñan’ bezalako proiektuak gorpuztu eta aztarna lagatzea»

entzun nuen. Zer? Eta hantxe agertu ziren eszenan aita eta arreba. Kristoren sorpresa izan zen, ez nuen batere espero eta momentu oso polita izan zen! ‘Miñan’-eko denek zekiten nik izan ezik». Ametsik? «Aurrera begira bizitza guztian honetatik bizi ahal izatea, lanik ez falta izatea. Eta ‘Miñan’ bezalako

proiektuak gorpuztu eta aztarna lagatzea». Erreferente izan? «Nahiko nuke, nire ustez garrantzitsua da. Zuk egin nahi duzun hori egiten ikusten baduzu norbait, ateak ireki egiten dizkizu. Esperantza puntua ematen dizu. Will Smith Hollywooden dabil, oso urrutiko zerbait iruditzen zitzaidan. Badaude gazte asko, beltzak edo beste arraza batzuetakoak, aktore izan nahi dutenak», adierazi du Diabyk.

Arnasa luzeko bidea egin nahi du. «Orain topera nabil ‘Miñan’-ekin, baina gero jakin ezazu... Burua hotz eduki behar da, oinak lurrean, eta pazientzia izan». •

Xole ARAMENDI ALKORTA





Nerea GODOY FUENTES
Hezitzailea eta Bizipozako kidea

Hitzasmatzea

Neska jaio nintzen, haur, nerabe, gazte, heldu eta adineko izatea dagokit orain. Adineko emakume, oraindik ez baita gauza bera, ezta zahartzeko ere! Haurra nintzela, apaiz ximel batek zera esan zion nire amari: zure alaba sugandila-buztanez egin dago, irakats iezaiozu behar den bezala egoten! Orduan, neskak ama eta etxekoandre izateko hezten gintuzten, ez eskolan bakarrik, gizarteak jolasean, janzkeran eta jarreran hezten du nabarmen. Mutilek jasotzen duten hezkuntza, baten batek esaldi hau hazkuraz irakurriko badu ere, ez da gehiegi aldatu 60 urtetan (behintzat). Ni ezarri eta inposatutako horietatik aldentzen nintzen, eta...

-Amama, zergatik? Sei urteko ilobak alkandoratik tira egiten didan bakoitzean, badakit zergatiren bat galdetuko didala. Oraingoan, azaroaren 25a datorrela eta, “ospakizunaren” jatorria jakin nahi du. Etxeko hezkuntza bai garrantzitsua, eskolarekin batera ziabogarik gabe arrau-nean, beti aurrera. Azaldu diot nazioarteko egunak edo egun bere(i)zi hauek urtebetetzea bezalakoak direla. Egunero zara egun bat zaharragoa, baina urtean behin gogoratzen dugu jaio zinela. Ezpainak luzatu eta sudur zuloetara igo ditu, bekozkoa jarri eta esan du: «Orduan, egunero da nire urtebetetzea?». Joan Mari Irigoienek bezala, maite dugu hitzak asmatzea, eta egunero bere “egunbetetzea” dela esan diot. Emakumeenganako indarkeriaren aurka ote

dagoen galdetu diot gero, biok barre egiteari utzi diogunean. «Noski!», erantzun dit harriduraz, «ez da inor jo behar, ez emakume, ez gizon, ez inor» gehitu du, harik eta...

+Joder... Horixe izan ohi da nire 14 urteko ilobaren lehen hitza, edozein esaldi hasi aurretik eta salbuespenik gabe. Adin horrekin dugun indarra miragarria da, helduek ahaztua dute behin haiek ere nerabe izan zirela eta haiek ere aldatu nahi izan zutela mundua. Munduaren funtzionamenduaren aurka, goitik behera erauzteko gogoa eta, aldi berean, “bostaxolatasuna”. Horrela deitzen diogu amama-ilobek dena berdin zaigun plantak egiten ditugunean hartzen dugun jarrerari. «Joder, Irati, ez da jotzea bakarrik! Hiltzeraino jotzea ere bada, baina tratu txarrak psikologikoak ere izan daitezke, edo kalean edo online mehatxatzea, edo pelmak izatea. Bortxatzea, eta ez du inporta zure neskalguna baldin bada! Ezkontzera derrigortzea, mutilatzea...». Orduan eten du Irati txikiak azalpena: «Mutil

atzea? Mutil izaten ikastea?». Une bateko isilunearen ondoren, barrez lehertu gara hirurak. Mutilazioa zer den azaldu ondoren, barre egiteko kontua ez dela argi geratu da, jakina. Baina hitzak asmatzen dituen familia honetako kiderik gazteenak bete-betean asmatu du mutilatzea hitzaren homonimoarekin. Denoi irakatsi digute zakil batean kondoia jartzen; ez, ordea, kulero batzuetan konpresa bat itsasten, eta zailtasun- eta garrantz-maila berdina edo antzekoa dute.

-Hortaz? Gure hausnarketak horrela borobiltzea gustatzen zait eta... Hortaz, bagoaz aldatuz eta eraldatuz, hitzekin jolasten jarraitzen dugu, hitzak asmatzen. Gure erreferente eta erreferentziak aldatu dira, sugandila-buztanez egindako batzuek aurrekari izateko ahalegina egin zutelako, gizonenak jotzen ziren arlo horiek hartuz. Emakumeek “ezin duten” edota “beharko ez luketen” horri mihia atera ziotelako, indarkeria horren aurrean burua altxatu zutelako. Idazten, Arantxa Urbe eta Amagoia Mujika, Eztizen Artola eta Ane Labaka. Oholtzan eta umorean, Aiora Zulaika eta Mertxe Rodriguez, Itziar Arkauz eta Nerea Mazo. Kantuan eta musikan, Anari eta Afrika Bibang, Izaro eta Olatz Salvador. Futbolean, Iraia Iturregi eta Aintzane Encinas, Nerea Eizaguirre eta Jone Amezaga. Eta aipatu ezin ditudan horiek, patriarkatuaren ize-nean erail zituztenak, gure lorpenetan oroitzea dago-kigunak. Matxismotik mutil-atzen zaretenean, gure lorpenak denonak direla ohartuko zarete. •



Iazko azaroaren 25eko mobilizazioetan ateratako argazkia. Gorka RUBIO | FOKU

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE. KUTXATEKA.

RICARDO MEDIAMARCA ASMATZAILEA DONOSTIAN, 1918AN

1918ko urriaren 20an egindako argazkia bitxia da, inauterietako irudia dirudi. Jende ugari bildu zen Donostiako Klub Nautikoaren aurrean, Ricardo Mediamarck diseinatutako salbamendu jantzi berritzaile baten proba ikusteko. Egun hartan, asmatzaileak, Irene Wilmer igerilari ingelesarekin batera, uretara jauzi egin zuen Donostiako portuan, asmakizun berriaren eraginkortasuna ebaluatzeko, eta emaitza positiboak eman zituen. Tokiko prentsak hurrengo egunean jasotzen zuenez, «...amildegian hondoratzeko ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren, baita asmo txarreko pertsona batzuen ahaleginak ere, beherantz bultzatu nahian. Dimisioa emateari uko egi- ten dion edozein politikarik bezala flotatzen zuten...». Salbamendu jantzi berritzaile honek hainbat patrika zituen alboetan, elikagaiak eta ura gordetzeko diseinatuak. Erakustaldiaren ondoren, publikoak asmatzailea txalotu zuen bere sorkuntza bikainagatik.

**Lurralde
berrietara
goaz**

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:** -en bidaia aldizkaria euskaraz

